

TORTIKO - ZIRTO “TXISTE”

BARRE ERAZLEAK

BIZKAIERAZ




OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEAK ARGITARATUA

TORTIKO - ZIRTO “TXISTE”

BARRE ERAZLEAK

BIZKAIERAZ



EGILEA: OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ARGITARATZAILEA

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

BILBOKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAZ

Egilea: Otazua ta Asua'tar Benito.

Argitaratzailea: Errekaldeko Lagun Artea Kultur Taldea.

Fotokonposaketa eta inprimaketa:

Flash Composition, S. L.

Alameda Recalde, 6 - 48009 BILBAO

AURKIBIDEA

ULEA MOZTU	13
ERREGENAK.....	13
LANA.....	14
GIZON SORTZEA.....	14
EZKONTZA.....	15
OILARRA BE BAI.....	15
AJE EDO GRIÑA TXARRA.....	16
AITAREN LAGUNTZA.....	16
BERE ESKUA	17
EZKOZIATARRA.....	17
JAIO TXIKI TXIKIAK.....	18
ESKEKOA	18
ITSUAREN IBILALDIA.....	19
BULTZIA (TRENA) GALDU.....	20
LENGO LEKUAN.....	20
EMAZTEA-ANDREA BEARREZKOA DA.....	20
TXAKUR AZKARRA.....	21
JARDUNALDIA.....	21
BANATZEA.....	22

IRUGARRENEKO ALARGUNA	22
AITA-GURE BAT SOILKI	23
LEGE APURTZEA	23
AZKEN GURARIA	24
AZTERKETAK	25
ERAZTUNA.....	25
GAUZAK EZ AIZTU	25
GANSTER BATEN SEMEA	26
LORIK EZIN EGIN	26
LAU ERRATOI	27
NOIZKO ZE EGUNEKO ORDUA?	27
TXARTELA	28
EMAKUME BERBAKOA	28
KOLGATU ESKEKOA	29
GABON SARIA.....	30
KAXKURRIO TA BERE ANDREA.....	30
ASKO IKASI	32
ORDUAN BAI, ORAIN EZ	32
IKER ETA PEIO	32
ZAZPI BAKARRIK.....	33
TXANGOLARI AIZTUKORRA:.....	33
LEGE-GIZONA TA ZERUA.....	34
LAGUNTZARIK GURA?	34

GIZON ZINTZO BAT	34
GIZON URKATUA	35
NOR JAKITUNAGO	36
IL BEIN BAKARRIK.....	36
NIK EZ DOT BEAR ASKO.....	37
BARTZELONARANTZ EZ	37
NI EZ NAZ ZU	37
IRAKURTEN EZ.....	38
GAIZKI ZAINDU TA OSATU.....	39
NESKAMEA.....	40
PITXAR GARAGARDOA.....	40
BIR GIZATZEA.....	41
ALPERKERIA	41
BEDAR BIKAIÑA.....	43
EGIÑAK LAPURTU	43
EZKONTZA.....	44
IDAZKARI TA ERROTARIA	44
DIRUA BERTAN ITXI.....	45
ADIGABEA	46
AROTZ GITXI-JAKITUNA.....	46
ZIGORRA	47
JOXANTONEN BEORRA	48
SEMEA.....	48

EZKON BARRIAK	49
NI BELGIKARRA NAZ.....	49
ARLOTE BI	50
LEONZIO ZIMELA.....	50
BIKAINASUNA	51
ZORO-ETXEAN.....	52
LANERAKO GOGOIA.....	52
EZKONTZEKO AUKEREA	52
ADIN NAIKO	53
PANTXO VILLAREN SEMEA	53
AITAREN SMOKINGE.....	54
ASMAKISUNA	54
LAN ASTUNEGIA	54
GERRESTUA.....	55
ADIGABEA	55
ATERKIÑA	56
LOTSEA BAI, DIRURIK EZ.....	56
SAMINTASUNA	56
GUZTITARIKOAK.....	57
TXANGOLARI JAKITUNA	57
UTS IKARAGARRIA	58
ANDREA GALDU	59
EMAKUME ERRUKIGARRIA	59

TXOMIÑEN TXAPELA	60
KORBATEA.....	60
NAPOLEON TA BERE ANDREA	60
SAN BERNARDO TXAKURRA.....	61
BEGIAK LURRETIK URBIL	61
SANTIAGO FLORES.....	62
SENARGAIA ATXILOTU	63
TXARRI OSTU.....	63
BIR-AMAMA	64
EZANEKOA	64
LOTSEA.....	65
EDANTEGI BAKETSUA	65
MARRASKILLO TA TORTUKIA.....	66
NIAGARAKO TURRUSTA	66
GAURKO TXARTELA BIARKO.....	66
ATXURRA TA PALEA	67
ANDREA EZAGUTU EZ	68
AUKEREA	68
PRAKA ZAARRAK.....	68
EURAK EZ DAKIE.....	69
GUTUNA	69
SOIÑULARIA.....	70
URDURI EZ?.....	70

MIGELTXU TXANTXAZALEA	71
ZENARGAIA ATXILOTU	72
MIRAGILEA	73
EZKON-AUSLEA	73
ZALDI BEREZIA	74
EZKONGAIK	75
EREMUA	75
EGIAREN ATSETIK	76
URRUTIZKIÑA TELEFONOA	76
AFRIKAN JAZORIKOA	77
SAFARIAN	77
ORAIN BADAKI	77
AMANTALA	78
ALBO-ALBOKA	78
EMAKUME BAT BESOETAN	79
GALTZE TXIKIA	79
SALBUESPENA	80
PANTXO VILLAREN SEMEA	81
AMABOST EGUN	81
AZKEN GURARIA	82
ARDONAZKA	82
AMABI SEME-ALABA	83
LAPURRA ALA ONGILEA	83

IKASTEETXEKO EGIN-BEARRAK.....	84
ARTXOA ZAKELERAKO.....	85
UMETXUEN TXIXA	85
ARREBEA	86
GIZON OARKORRA	87
AZTERKETAK EDERTO	87
TXAKURKERIA	88
ANDRA-GIZONAK ELEIZAN	88
MARTIN LUTHER KING.....	89
OILOAK ILUNTZEAN EUREN OTARA	89
DIRUA EMON.....	90
GEROAGO TA GARESTIAGO.....	90
BEREZKUNTZA	91
TELEBISTA GAILUA.....	91
ERREGE OPARIAK	92
DIRU AURRERATZEA	93
BIZAR MOTZAILEA.....	93
ARAGI IZTE.....	94
BABESA	94

ULEA MOZTU

Ander bere andra Pelisa ta iru seme-alabagaz bizi da. Naizta Anderrek burdin-ol baten lan egíñez ilero aloger polita eskuratu, ilaren azkenengo egunak osoz barau egunak ez ziran, baiña bai naiko urbilak.

Bizi-bide baketsu, poz, alaitasun apur bateagaz eroateko, diru eskuratzea ber-bearrezkoa da, guztiz garrantzitsua, baiña dirua gudeatu, arduraz erabiltea be oso garrantzitsua dala deritxat, eta Pelisa, Anderren andrea, orretzaz kudeatzeaz oso trebea da. Berak, Pelisak Ekonomi, Zienzias Ekonomikaz, olako ikasketarik ez dauz egin, eta ez daki zer diran be, ostera berantzat, Pelisantzat, ogerleko bat bost ogerleko edo geiagotan biurtzea, ez da eziña.

Artero esan dogun bezela, Ander eta Pelisak iru seme-alaba dabez, eta etxandreak dirua aurreratzeko naian etxeko bere seme-alaba eta gizonari ule berak moztea egiten dau. Bai Pelisa ule-moztzailea da, ta bere gizonak, Anderrek, iñoanetik naiko ondo egiten ei eban, naizta olan esan, Anderrek ez eban gura izaten berari ebagi egionik. Bildur zan lagunak txantxetan izango zirala, ulea ain ondo moztuta ez ikusirik.

Baiña Pelisa ekin eta ekin jardunez azkenean bere gizona ulea mozteko bere eskuetan jarritzea lortu eban.

Ander egunkaria bere eskuetan ebala aulki baten jezarri zan, eta bereala bere andrea bere zeregiñean saiutzen zan. An ebillen andra errukigarria artesikaz kris eta kras bere lanean.

Anderrek egunkarien leenengo orria irakurritzea amaitu ebanean eta bigarren orrialdera biurtzen asi zanean, bere andrearen abotsa entzun eban iñotsola, Ander, mezedez itxaron apur baten, nik ondiño ez dot irakurri leenengo orrialdea.

Anderreri zelako burua geratu jakon asmauko dozue.

ERREGENAK

Oneik barrabanok...! Non ikasiak dira! etxea aurreko solorantz Kepa irribarreka joian eta bestaldeko Lorentzoaz topo egin eban, eta onek esan eutsa.

Zer jazoten jak, Kepa? alai, pozik ator lanera.

Ao ixilik, oneik barrabanok..., umeak, urtekera batzuk ba jakesak... atarian sarataka ibilli dozak, eta zeo-zer esateagaitik, ixildu naian, zerbait esateagaitik, esan jautset.

Ixildu zaitze!... ixildu ta erregei idazten ba dautsazue oba izango da.
Idatzi dautsoegu aita, Aitorrek, erantzun jaust.
Eta zer eskatu dautsozue ba?, barriro itaundu jautset.
Ba, aita nik... a, sarriago etorri daitezela, eskatu dautset, urtero bein soilki,
bakarrik, etortea gitxitu deitxat eta.

LANA

Nire auzokide Joseba azpaldion oso makal, osasun arazoak dirala ta arduratsu ikusten dot, eta beragaz alkar-izketa bat egin ondoren Sendagile bategana joatea erabagi dau.

Biar goizean joango gara, esan neutsan. Biar goizean amarretan nire etxeko atarian egon zaitetz, ni bertan izango naz.

Biramonean Joseba zeatz amarretan nire etxean aurkeztu zan, eta alkar agurtu ondoren Osagilearen etxerantz abiatu giñan.

Osagilearen lan-tokia aurrez aurrez dagon Pelipen edantegian sartu, ta Joseba Sendagileaz zan bitartea emon neban. Nire adiskidea itzuli zanean, esan neutsan.

Zer Joseba, Osagileak zer esan dautsu ba?

Ezer ez, ganoradun ezer be ez. Betiko leloak, esan eban Josebak, ez edateko, ez erreteko, ba nire gaixoarentzat oso kaltegarriak ei dira. Ostera goizeko seiretan jagi ta lanera joatea kaltegarria dala, ez daust esan, eta orixe da, ain zuzen be, orixe da ni makaltzen nauana. Lanera joatea ta batez be ain goiztar, da ni gaixoten nauana.

Gizona. Zer izan bear dau lanak osasun kaltegarria! Lana gizona goraltzen dauan griñarik ederrena da, osasun-iturria, erantzun neutsan.

Orreik, gabon abestiak dira, erantzun eustan. Zuk diraustazuna olan izango balitz, aberatsak, dirudunak, lana guretzat itxiko leukeela, uste dozu?

GIZON SORTZEA

Nik olan uste neban, eta zuek be or urbil ibilliko zarie, Jaungoikoak leenago gizona egin ei eban, erpel batetik gizona egin ei eban, eta ondoren gizonaren saietsetik andrea egin ei eban.

Bai, nire lagun batek esan eustanetik, gure asmakisunak okerrak ei dira. Leenengo andrazkoa sortu ei eban. Gizaki, gauza, txukunagorik ez eitekela asmau ikusirik, amaitutzat emon eban bere lana.

Baiña gerotxuago konturatu ei zan, izaki ain txukun, polit, eder, ori zaindu, jagon, eta bere erosketa guztiak ordainduko eutsozan lagun bat bear ebala ta... orduan sortu ei eban gizona.

Nire adiskideak txantxa naian esan ba eustan ez dakit, baiña egia antza daua-
la ez dozue ukatuko.

EZKONTZA

Antziñatik ikusten ez ziran neskatila bi uri-nagusiko kalean topo egin eben. Olako gertaeratan jasoten dan lez, neskatila biak alkar agurtu ta musukatu ondoren astrapaladaka izketan saiatzen ziran. Apur bat nasaitu ziranean, euren-
tarikoa batek bere lagunari esan eutsan.

Zer Edurne, ezkndu ziñan?

Ez eistazu aitatu be, ez eistazu gogoratu-azo be, Julenek, bere lagunari esan eutsan.

Zer ba? Asarratu ziñien ala? Edurnek jarraitu eban.

Ez, ez,... baiña urte bi luze dira ezkondu giñala.

OILARRA BE BAI

Gaur egun gure lurraldetan txangolari ugari ikusi al izango dozu.

Txangolari batek Lemoatik Gasteizerantz Igande goiz baten bere kotxe dotore ta garestian, joiala, Dimako lurraldetatik joiala, oilo eder bat zapaldu, bere kotxeaz zapaldu ta il eban.

Gizona, kotxe gidaria, gelditu ta kotxetik jaitsirik, errepide alboan basetxe-
ko atarira artez artez joan zan: Gidariak asmu onez, oiloa ordaintzeko asmu-
z, egin eban kaltea, baserritarrari egin eutsan kaltea ordaindu naian, beragana aur-
kezturik esan eutsan.

Tamala dot, ez-nai osoan izan da, ta oiloa ordaindu gura dautsut. Eutsiz mila laurleko, oiloa, uste dot, ondo ordainduta dala. Parkatu.

Bai baiña..., oilarra be ordaindu bearko daustazu, baserritarrak erantzun eutsan.

Oilarra?, oilarrik nik il ez ba dot, txangolariak esan eutsan.

Ez, ez, baiña... baserritarrak jarraitu eban, gure oilarra oilo onegaz oso mai-temindurik zan, eta ezbear au jakiten dauanean biotz-naigabez, oiñazez, ilgo jat.

Txangolariak irribarretxu bat egiñez, beste mila ogerleko emon eutsozan.

AJE EDO GRIÑA TXARRA

Nire auzokide Eustaxio gizon langile ta deduzko ba da, baiña griña kaltegarri bat dau. Ukondoa jasotea guztatzen jako.

Eustaxio bere lan-toki barrian, bere bizi-bide barrian, iru ilebete daroaz eta oso pozik dabil.

Egun batzuk dira lantegiko nagusiak Eustaxiori bere idaz-gelara joateko deitu eutsola.

Or doa gure Eustazio guztiz arduratsu, zer esango ete dautson, bere nagusiak zer esango ete dautson, guztiz kezkatu doa. Idatz-gelan sartu zan, eta nagusiak esan eutsan.

Entzun dodanez, zu ez zara gizon guztiz zintzo, borbots, ituna. Zurrutadak, joko ta emakume zalea zarala, diñauste.

Eustaxio gizajoa, aldizka, larri, nagusiari iñotsan.

Ara zuzendari jauna, ni... ba...

Ixildu zaitez, mezedez, esanez nagusiak Eustaxion izketa eten eban, jarraian esanez. Gaur gabean, biok batera, alkarregaz urten bear dogu.

AITAREN LAGUNTZA

Nire auzoko Mikeltxu erriko ikastolara asi da arikatzen (Arikastu-Estudiar. ARI IKASI TU, Ez dot üste guztiz txarto dagonik).

Bere aitak, Mikeltxun aitak, mutilak geiago ikasi egian eta errezagot, ikastolatik ekarten ebazan ariketak egiten laguntzen dautsaz.

Bere semearen ikasketatan eban bere laguntza larregi zala ikusirik, egun baten bere semeari iñotsan.

Seme, irakaslea zure ariketak, etxean egiten doguzan zure ariketak, neure laguntzaz egiñak dirala, ez dozu uste sumauko dauala?

Bai, egia da aita, olako zerbait sumatzen dauala, uste dot. Atzo goizean ariketak aztertzean esan eustan ain-bete burugabekeri neuk bakarrik, iñoren, norbaiten, laguntza barik egitea eziñekoa dala.

BERE ESKUA

Braulio nire auzokide ta adiskidea aurpegi asarre itxuragaz gaur iluntzean eldu da bere etxera. Inaxi bere andreak olan ikusirik, ain goibel ikusirik, diñotso.

Zer jazoten jatsu gizona aurpegi orregaz etorteko?

Zer jazoten jatan? Diru-zorroa aldean nebazan diru guztiakaz lapurtu dautela, Brauliok, erantzun eutzan.

Baiña zelan? Diru-zorroa non zeroan ba? andreak itaundu eutsan.

Non eroango neban ba, praktetako sakelean, iñotson gizonak.

Ta... zure iztarrean, eskua sartu dautsunean, eskua sakelean sartu dautsunean, ez dozu nabaritu kilikirik?

Bai, nabaritu dot, baiña uste izan neban neure eskua dala.

EZKOZIATARRA

Ezkoziatarrak gizaseme zeken, zikoitz ospe, aomen dabe, orain ementxe ikusiko dogun tortikoak olan adierazoten dausku.

Ara emen, ezkoziatar bateri zer jazo jakon. Bere uriko kaletik zear joiala Antontxu bere semea, seme txikiena, kalean gozoki-kutxa baten aurrean, eta beragana urreraturik, gozoki-kutxa beratan txanpon bat sartu ebalu konturatu zan lez, agirekada garrats, gogör bat egin eutsan esanez.

Ergel, keto ori, tramankulu orretan txin bat dirua sartzten ikusi zaitut eta geiago sartzeko zorian zengozan. Milaka bider esan dautsut orko txokolatea, kutxa orretako txokolatea, urdailerako kaltegarria dala.

Baiña... aitatxu..., diñotso umeak, guzurrezko txina, dirua, izan ba da.

Ordun kirten ori ekiozu, ba da olan izanik txokolate orrek kalterik ez daustu egingo eta.

JAIO TXIKI TXIKIAK

Gaur egun txangolaritza oso garrantzitsua da. Gaurko gizartean zaletasun bizia da beste erri ta uri batzuk ikusi ta ezagutzeko. Ekonomi arloan be erri ta laterrientzat diru eskuratze eragilea izanik, txangolaritzari dagokiona arduratsu zaindu, babesten dabe.

Ixasaldeko erri txiki batera egun sargoritsu baten andra-gizon bi, eldu ziran. An ebillen gure bikotea erriko baztar guztiak arakutzen. Erria naizta txikia izan kondaira gabea ez zan. Erromatar eta leenagoko laterriek iraitako etxe ta zubi zaar ugari ikusirik, gure andra-gizonak arrituta, ango etxe, zubi bide ta errepi-deen antziñatasunagaz sukor, alai aurkitzen ziran.

Bai, au egia da, baiña euren txangolari zaletasun eta antziñekotasun zaletasuna asetzeko beste eraikite ikusi eben, baiña beste alde batetik apur bat kezka-tsu ziran. Eurentzat, gure bikotearentzat, arritzekoa zan ainbeste eraikite balio-tsu, euren antzinekotasunagaitik balio-tsu ziran, ainbeste eraikitearen artean, gizon ospetsu, erritar gizon ospetsu, jakitun baten eroigarri battxu bat be ez ikustea.

Euren jakin-naia, asetu gurean erriko gizon tolesgabe bategana urreraturik, esan eutsoen.

Zu adiskide, erri onetan ez da jaiio iñoiz gizon aundirik?

Ara jauna, emen ez, emen danak txiki txikiak jaioten dira, erritarrak erantzun eutsan.

ESKEKOA

Nire erriko kale ertz baten eskeko batek urte mordoaa daroa bere zeregiña betetzen. Aldi luze orretan adiskide eta ezagun asko egin dauz, eta euretariko bat mutil gazte bat da.

Mutil onek lanerantz goiztar joiala astero ogei ogerleko emoten eutsozan.

Arik epe ez ain luzean amabost ogerleko astero amabost ogerleko oparia ezar-tzen eban. Urte bete geroago amar ogerlekora jaitsi zan oparia, gaur egun bost ogerleko eskekoak astero eskuratzen dauz, eta jakina guztiz kezkatu da.

Gizonari zer jazoten jakin jakin naian, egun baten itaundu eutsan.

Zu adiskide, ezagutu zindudazanean ogei ogerleko astero emoten zeustazan, apur bat geroago amabost, gero amar eta orain bost ogerleko uts-utsean, soilki, jakin leiteke zer jazoten jatsun?

Bai, zelan ez, gizonak erantzun eutsan. Leenengo aldian ni eskongai nen-goan, gero ezkondu nintzan eta gaur egun umetxu bin aita naz, beraz andra bat eta seme bi elikatu ta ezitu bearrean naz. Au da guztia.

Ederto, eskekoak erantzun eutsan, eta nire diruaz zure sendia elikatu ta ezi-tzea ondo deritxazu?

ITSUAREN IBILALDIA

Nire adiskide Jon, gizon gazte oso biotz onduna da. Batez be lagun-urkoari mezedo egiteko beti egoten da gertu.

Benetan aukera polita dau, lagun-urkoari mezedo egin al izateko, aukera polita, bere bestaldeko Josebagaz izaten dau.

Joseba be gizon gaztea da, osasuntsua eta baita be alai, baiña zoritxarrez itsua. Ume umetxutetik gaixo zital baten ondorioz itsua da.

Eguraldi euri bakoa dan egun guztietan Jon eta Joseba ibilaldi bat egitera erriko kaleetatik alkarregaz joaten dira. Jonek bere adiskide Josebari euren inguruan agertzen zan bereziana zeatz azaltzen eutsan.

Egun baten, Udabarriko egun eguzkitsu ta alai baten, euren oiturazko ibilal-dian joiazala, gure bikoteak erriko neskatik bateaz topo egin eben. Neskatil gaz-tea bikotegandik apur bat aldendu zanean, Josebak bere lagunari azaltzen eutsan, neskatila onen edertasunak, zelako begiak eukazan, bere ula kirru, aur-pegia matrail gorrizka ta oso eragarkarria zala, esanez.

Arik umetxu batera, oinkada batzuk egin ondoren Jonek atserantz begiratu eban, eta bikotea bideratzen zan bide beratan egoan zugaitz bateaz, gizonak, itsuak ez, Jonek, topo egin eban. Bereala gertaera onegaz itsua konturatu zan, eta maltzurkeriz esan eutsan.

Adiskide, zerbaitegaz topo egin dozu, ez?

Bai, zugaitz bat jo dot, topo egin dot.

Ba, artu eizu, eutsi nire besoa beste zerbaitegaz topo egin ez daizun.

BULTZIA (TRENA) GALDU

Nire iloba Endika bere lantegiko arazo batzuk zuzentzeko asmuz urruneko uri batera joan zan.

Itzultzeko izendatuta eukan egunean, ez dakigu zergaitik, mutilak bultzia, trenna, galdu eban. Gure mutilak gauzak ondo egin naian, bere lantegiko nagusiari telefonotik deitu eutsan esanez.

Tamala dot, jauna, gaur zazpiretako bultzia artu bear neban, baiña arazo txiki batzukaitik eziña izan jat, biar ordu bardiñean urtengo dot orrantz joateko.

Ba, ordu bardiñean biar urteten ba dozu, barriro trenna galduko dozu, bere nagusiak erantzun eutsan.

LENGO LEKUAN

Antziña nire errian gizon oso on bat bizi ei zan, baiña aurrera jarraitu baño leenago gauza bat azaldu bear dot, nire errian gizon onak beti izan dira eta egia esan, ugari. Orain goazen txatxa onen arira. Nire erriko gizona buru-argitasun urrikoa ei zan, apur bat atseratua esaten dabena. Gizajo uts-utsa. Santostxu zan bere izena, baiña ezizenez Zirkil deitzen eutsoen.

Zirkil bere ulea moztuten Inasion bizartegira joaten zan. Inasiok ulea doan moztuten eutsan eta ondoren alkar-izketa luzea izaten eben.

Bein baten Zirkilek Inasionari esaten eutsan.

Ara Inasio, errian ni kokoloa nazala, leloa nazala, esaten dabe, baiña, baiña erriko abadeagandik entzun dodanetik orixe Kesukristo be azkar-azkarra dala-korik, ez dot uste, iez, joan dan urtean, Ketsemaniko ortuan bere arerioak arrapau ei eben, eta aurten be ortu beratan arrapau dabe. Ba, ni bigarrenez ortu bera-tara ez nintzan joango.

EMAZTEA-ANDREA BEARREZKOA DA

Gizon guztiak, danak, bear dabe andra, emazte bat, ba da goiz edo belu, leenago edo geroago, jaurlaritzari errua bota eziñeko zerbaít jazoko jako.

TXAKUR AZKARRA

Errekondo Mikel bere txakur oso azkar bat dala ta, guztiz arro dabil.

Bere auzoko Lorentzogaz egun baten alkar-izketa zirala esaten eutsan. Txakurrari, nire txakurrari dirua emoten ba dautsozu, beingoan egunkaria ekarriko dautsu.

Ikusi nai nuke ori, Lorentzok esan eutsan. Deitu eiozu txakurrari ta neuk dirua emongo dautsat.

Mikelek txistu bat eginik txakurra bereala baserritar bikoteaz izan zan.

Lorentzok txakurraren aboan dirua ezarri eban, eta abereak tximista bezela arin urten eban.

Txakurra bizkor joan zan baiña ordu bete geroago, arik ordu bat geroago agertugabe zan.

Arraioa, Mikelek esan eban, gure txakurra ondiño ez da agertu, ta au ez da oiturazkoa, diru gitxi emon dautsazu, ala?

Ez dot uste, bosteun laurlekoko ingi bat emon dautsat.

Diru larregi emon dautsazu, gizona, Mikelek esan eutsan. Diru asko emoten jakonean antzokira joaten da.

JARDUNALDIA

Zure itxura oso txarra da, Osagileak Iñakiri iñotsan. Egunero jardunaldi batzuk egin bear zeunkez.

Baiña jauna, niri jardunaldiak ez jataz bat be guztatzen, Iñakik erantzun eutsan.

Ara, Sendagileak jarraitu eban. Asieran lenengo egunean, astiro astiro joan zaitetz. Uritik, au Bilbon jazo zan, lenengo astean egunero bost bat kale luze ibilli zaitetz, bigarren astean zazpi-zortzi kale, irugarren eta laugarren astean egunero amar kale ibilli ondoren iztulki zaitetz nire osagelara.

Bear-bearrezkoa ba da..., erapenez Iñakik esan eban, olan egingo dot.

Arik ile batera gaixoak telefonotik Osagilleari deitu eutsan.

Osa... gi... le... jau... na, aldizka iñotsan, baiña Osagileak eten eutsan, esanez.

Iñaki, zelan doatzuz jardunaldjak?

Jauna, gaixoak erantzun, il-zorian dagon gizaki bateaz zagoz berbetan. Gor-

putz osoa minduta dot. Geiago ezin dot jasan. Il bear naz.

Nire osagelara beingo baten etorri zaitez, Osagileak esan eutsan.

Joan berorren osagelera?... Mila kilometro urrun aurkitzen ba naz!

BANATZEA

Bestaldeko Anderrek ilobatxu oso azkar bat dau, ta egia esan, aitite ume-txuaren azkartasuna ta jakituria dala ta, abotik bitze dariola ibiltan da.

Atzo iluntzean edantegian, tabernan, ara zer esan euskun.

Lagunok, nire ilobatxuak zelako erantzuna lengo egunean emon eustan, ez dakizue zuok.

Aitortxu, esan neutsan, sei ogerleko zure anai Mikelegaz banatzeko, erdi-banatzeko, emoten ba dautsudaz, zure anaiari zenbat ogerleko emongo dautsuzuz?

Bi, deabruak esan eustan.

Zelan bi?, iñotsan. Zer, banatzen ez dakizu ala?

Nik, neuk bai, baiña Mikeltxuk berak ez.

IRUGARRENEKO ALARGUNA

Nire auzokide bi, andra alargunak eurak, garbitu barriak ziran soiñekoak legortzeko eskegiten egozan. Au ez da arritzekoa, egunero ta edozein egoitzan jazoten dana da ta. Euren alkar-izketa, berako mailan bizi zan atsotxuaren buruz izan zan. Euratariko batek bere lagunari olan iñotsan.

Au gure goiko atso gizajea be orain...

Nor? Katalin, irugarreneko andra alarguna?, diñotso besteak, zer jazoten jago ba?

Bere alaba biak ezkondu dira, ta orain nora joango ete da bizitzen. Oraingoz bere egoitzan geratuko da, baiña tamala da, jarraitu eban.

Zer ba, gaixorik da ala? Besteak erantzun eutsan.

Ez orregaitik ez da. Lengo egunean beragaz izketan egon nintzen, eta emen, bertan geratu bearko dauala uste dot.

Bai, zergaitik?

Ba dakizu, suiñak Eibar eta Balmasedatarrak dira, ta alaba biak euren gizonen errira joan dira bizitzen.

Bai, eta zer?, iñoan euretariko batek, olan izanik, ba dauka nora joan.

Ain zuzen be, orrexegaitik naigabea sortu jako ba, leenengoak esan eutsan.

Eibarrera ala Balmasedara nora joan ez jakinik dago atsotxua, ala?, iñoan besteak.

Ez, ez, Katalin bera, ba dakizu on bat da, andrazko on bat da, gertu dago erri batera zein bestera joateko. Suin batek amagiñarrabea Balmasedara joatea nai dau, ta besteak Eibarrera joatea.

Olan dala, amagiñarrabeak asko maite dabe, andratariko batek iñoan.

Maite? Bai zera... Eibarko suiñak Balmasedara amagiñarrabea joan daitela gura dau, ta Balmasedakoak Eibarrera.

AITA-GURE BAT SOILKI

Nire lengusiñe Mirenen seme txikiena eleizan kristau-ikasbidea ikasten asi dala egun batzuk dira. Leenengo egunetan mutila oso pozik ebillen baiña atzo bere amari negarrez agertu jakon.

Bere amak olan ikusirik abots maitekiroz esan eutsan.

Julentxu, zer jasoten jatzu?

Umetxuak negarrez jarraitzen dau ta sotinka bere amari diñotso.

Abadeak Aita-gure bi otoiitz egiteko agindu daust, eta nik bat soilki dakit.

LEGE APURTZEA

Norbaitek lege bat sortzen ba dau, laster beste batek lege berari iruzur egi-teko zeozer, zerbait, asmauko dau. Antziña, leen, olan izan zan, gaur ez. Gaur egun legea sortzen dauanak ber-berak apurtzen dau, berari egoki jatorkon uanean ezereztuko dau. Baiña goazen arira.

Txanton Azkarre basetxekoa gizon ona da, baiña ukondoa jasotea gustatzen jako, ta griña txar au dala ta, edantegian sarritan ikusten da. Egun baten, obeto

esanda gaba baten goizaldean erriko edantegi batera joan zan. Edantegiko atea bultzatu eban. Edantegian barneraturik, bertako morroi bategana urreraturik esan eutsan.

Mezedez, prantzez koñak txolatxu bat, atara eidazu.

Eziña da. Ordu onetan edari gogorrik, saltzea debekatuta dogu, morroiak esan eutsan.

Orduan, ur apur bat eta bikarbonatoa atara eistazu, edontsi baten atara eidazu, Txantonek iñotsan.

Morroia Txantonek eskatuko ataraten joan zan, baiña edantegiko nagusiak, Alejandrok, kiñu bat egiñik, ez atarateko esan eutsan, ta bereala Txantoneri diñotso.

Zu Txanton, telefonotik deitzen dautsu, norbait zure itaunka dago.

Niri? arrituta Txantonek erantzun eutsan.

Bai zuri.

Txanton, tramakulu ori, telefonoa egoan tokirantz abiatu zan eta... antxe, bertan, telefonoaren alboan prantzez kopa bat egoan.

Txanton arritu zan, baiña zurrutada eder eder bat gozoro egin eban, astiro astiro edan eban.

Koñaka edan ondoren mostradorera itzulirik, nagusiari esan eutsan.

Jauna parkatu, baiña ementxe geratu bear dot, eta mezedez egon zaitez zain ba da telefonotik beste iru deadar itxaroten dodaz eta...

AZKEN GURARIA

Errotabarriko Endika gaixorik oso txarto aurkitzen da, il-zorian da, oartzen da bere egunak zenbadurik dirala, bizia ba doakola. Bere alboan, oge buruan semetariko bat dago, ta berari diñotso.

Seme, sargar-erre usaiña sukaldetik datorrela nabaritzen dot, eta zure amatxori esaiozu, azken gurari bezela sagar-gozoki orretatik satitxu bat jatea nai dodala, ta mezedez ekarri daistala, apur bat ekarri daistala.

Mutila aitaren agindua betetzen joan zan eta bere amari bere aitaren guraria esan eutsan.

Aitagana mutila itzuli ta bere amaren erantzuna aitari adierazoten eutsan, esanez.

Amatxuk, ezetz esan daust. Egin dauan gozokia ileta ondorenerako dala ta orain ez doala asten, gozokia zatituten, esan daust.

AZTERKETAK

Aita-amak, gurasoak, ikasturte amaieran, ekaiña eltzen danean euren seme-alabaren azterketak dirala ta guztiz arduratsu izaten dira.

Nire bestaldeko Emeterio be, olako aita arduratsu bat da. Joan dan astean bere seme Josebari, ikastetxetik etxerantz azterketak egin ondoren etorrela bere aitak, Emeteriok, itaundu eutsan.

Seme, azterketak zelan? Ondo?

Bai aita, semeak erantzun eutsan, oso ondo. Irakasle danak, mai-epaileak, gura dabe irailan barriro egin dagidazan.

ERAZTUNA

Nire adiskide Txomin, egunkari baten irakurri eban albiste bat dala ta, oso artega, kezkatu, dabil. Areñegun nigaz alkar-izketan zala, esan eustan.

Zu Josu, lengo egunean isparringi baten, Izaroko ugartean, bere ankan eraztun bat eroala txori aundi bat aurkitu dabela, irakurri neban. Egun batzuk geroago Orduñan beste bat, au apur bat txikiagoa bere eraztunagaz. Neure buruari itaunka nago, ze arraiotarako eraztun orreik ipinten ete dautseezan?

Ori erreza da jakitea, Txomin, esan neutsan. Txoriak nondik nora dabilzan jakiteko. Zeuri zertarako, uste dozu, ezkondu ziñienean ipiñi eutsuela atzamarrren daroazun eraztun ori, ba? Zure andreak nondik nora zabilzan jakin dagian, gizona.

GAUZAK EZ AIZTU

Nire auzuneko Ikertxu zazpi urte dauz eta erriko ikastolan dabil, baiña nire ustez, azkarragoa da jolasten ikasten baiño.

Ara egun baten zer jazo jakon. Ikertxu ikastolatik etxera itzultzean oso asarre ta negarrez etorren, eta bere aitak olan ikusirik, abots minduaz esan eutsan. Semetxu zer jazoten jatsu, negarrez etorteko zer jazoten jatzu, Ikertxu?

Irakasleak zirgortu nau, mutikoak erantzun eutsan.
Zeozar, zerbait, okerrekoa egingo zenduan ta, aitak iñotsan.
Ez, ez, aita, Brasil non dagon jakin ez dodalako izan da, mutilak iñotsan.
Ederto egiña, ederto, urrengoan gauzak non itxiten dozuzan ez aitzu, aitak asarre esan eutsan.

GANSTER BATEN SEMEA

Gertakizun au Txikagon jazo zan. Uri aretako ganster baten semea, urteroko azterketak ikastetxean egin ondoren, guztiz pozik bere etxerantz etorren. Bere aitak ain pozik, alai, etxera barneratzean ikusirik, diñotso. Seme, zelan ikastolako azterketak? Ederto aita, ondo baño obeto, erantzun eutsan semeak. Ikusi ba ninduzun, arro arro egongo zintzakez. Ondo be ondo ikasi dodaz zure irakatsiak. Baiña, esan eidazu, guztiz larri nago jakin gurarik, zelan egin dozuzan, guztiz urduri bere aitak iñoan. Begira, lau ordu baño geiago izan dira niri itaunka; mai-epaileak lau ordu baño geiago niri itaunka egon dira, eta nigandik ez dabe atera ezertxu be.

LORIK EZIN EGIN

Londresko gizon bat gaba baten, urrengo egunean, biramonean 50.000 laurleko ordaindu bear ebazala ta guztiz urduri, lorik egin eziñik ogean biraka ta biraka, aurkitzen zan. Azkenean asmakisun zoragarri bat izan eban. Jagi zan ogetik, telefono egoan tokira urreraturik, biramonean dirua artu bear eban gizonari deitu eutsan. Ariaren beste aldetik oso asarre gizon batek erantzun eutsan, iñoala. Zer jazoten jatsu, gizona? Ba dakizu ze ordu dan. Gaba erdia da ta izartu nozu. Zuk diraustazun guzti ori ba dakit, zordunak jarraitu eban, eta zuk ba dakizu biar zugaz dodan zorra ordaindu bear neutsula? Ain zuzen be orrexegaitik deitu dautsut. Zor ori biar ordaintzea eziñekoa dot, une onetan diru barik aurki-

tzen naz, alegin guztiak egin dodaz, baiña dirua ezin izan dot batu, parkatu, aurreko egun baten alkarregaz izango gara, gabon.

Au esanez ogeratu zan, zorduna ogeratu zan, baiña oraingoan oso nasai. Au da nire baitatik kendu dodan astuntasuna, orain lorik egin ezingo dabena bera izango da, ifioan bere baitan, eta egun-senti arte ederto egin eban lo.

LAU ERRATOI

Beiñola moztorki bat guztiz guztiz kezkatu, amesetan lau erratoi ikusi ebalako oso arduratsu zan.

Bata, erratoi bat, itsua izan da, beste bat plast egiteko ainiako lodi, gizona ta beste biak jostorrontzan antzekoak, estu ta meak. Esan al daustazu ameseta orrek, arratoi orreik zer adierazo nai daben?, bere andreari esan eutsan.

Andra errukigarriak ez ekian zer esan, eta euren semea Txomintxu buru-argikoa dala ta, berari itaundu eutsoen.

Mutikoak bere aitaren amesetea entzun orduko, esan eutsan.

Ara aita, ori argi-argi dago. Zure amesetako arratoi argal biak ama ta ni gara, zu zara arratoi itsua eta plast egiteko aian lodi dagon arratoi gizona, auzoko ardao saltzailea da, edantegiko nagusia.

NOIZKO ZE EGUNEKO ORDUA?

Errotazarreko Erramon oitura eban bezela naiko txolinduta edantegi batetik urteten dau. Kaletik zear bere etxerantz joiala, Erramonek ezezagun bateaz topo egiñik, itauntzen dautso.

Jauna, esan al daustazu ze ordua dan?

Bai, zelan ez, gizonak erantzun eutsan.

Amaika ta erdiak dira.

Erramon, iztarrak zabal-zabal ebazala, oldozkor, gelditurik, bere lagunari gizonari, berriro itaundu eutsan.

Parkatu jauna, baiña gaurkoak ala biakoak dira?

TXARTELA

Edurne ta Pelipe andra-gizonak, Zaldibarren erri txiki politan bizi dira. Edurne ta Pelipek euren abere, bei ta idiak ganera, asto bi dabez, eta basetxeko lanerako asto bateaz naiko daben ezkeru, bestea saltzea erabagi dabe.

Pelipe, aukera polita dogu datorren Igandean gure astotariko bat saldu al izateko. Zergaitik Zornotzako azokara ez daroazu asto zaarrena?

Eta jakiña, etxandreak nai dauna geienetan etxean egiten dan ezkeru, or doa gure gizona asto traillan daroala, Zornotzara. Astoa ankatatik apur bat biguna dan lez, trenean eroatea egokiagoa deritxa, ta geltokira urreraturik txartel-leiolako arduradunari esan eutsan.

Txartel bat, nire astoantzat txartel bat Zornotzaraño emoidazu, mesedez.

Eta zuretzat beste bat, ez? txartel-saltzaile arduradunak iñotsan.

Ez, ez, nik ez dot bear, ni asto ganean joango naz. Pelipek erantzun eutsan.

EMAKUME BERBAKOA

Zergaitik ete da andrazkoak urteetan sartzen diranean ain ixilik euki gurea euren urteen zenbakia?

Orixo ber-berori nire idazki onetako neskatilatxuari be jazo jakon.

Bein baten auzitegira aitorgile lez joan bear izan eban, eta onelako gertaeratan jazoten dan bezela, bere, neskatilaren izen ebizenak artu ondoren, epaileak bere urteakaitik itaundu eutsan, au da, ia zenbat urte ebazan.

Ogeita amar, neskatileak tximista bera baño ariñago erantzun eutsan.

Ogeita amar?, orain iru urte be beste auzi baten aitorgilea izanik, orixe esan zeustan, ogeita amar urte zenduzala, epaileak esan eutsan.

Jakiña, jarraian neskatileak iñotsan, nik gaur gauza bat eta biar beste bat ez dot esaten.

Neskatila berbakoa ez zala ez dozue esango.

KOLGATU ESKEKOA

Nik, uste dot gaur egun Bilbo erlauntz bat dala. Erle langilez beterik dan erlauntz bat. Baiña erlauntzetan be erle-mandoak, alperrak, egoten dira, ta uri onetan be, Bilbon, erle-mando ugari dira, ifloren lepotik bizi diran erlemando, alperrak.

Nozean bein Uribitarteko anaiaren etxean lo egiten dauana ta lanik egin barik bizi danatariko bat, Kolgatu da.

Lanik egin barik?, naiko lan egiten dot nik lanik egin barik bizi al izateko. Zer... ba? lanik egin barik bizi al izatea erreza dala uste dozu?

Jakiña, lanik egin barik bizitzeko lagun onak euki bear dira. Kolgatu mutil zaarra dogu, oso argala. Etxearteko ta adiskideak egiñalak egin ebezen Kolgatu zuzendu eiten, baiña guztia alperrikoa izan zan. Kalerik kale, edantegitik edantegira eskean ibiltzen da. Iñon diranak entzun bear izaten dauz, baiña berak ez entzun egiten dau.

Kaleak garbitzeko ez dago lanik ala? sarritan esaten dautsoe, eta bere erantzuna olan izaten da.

Lana, bai, ugari egon be.

Eta zergaitik zara ain ganorabakoa ta ez dozu lan egiten? Egizu, egin eizu lan, gizona.

Nilako alper burubako bat elikatzeko lan egitea merezi dauala, uste dozue? Kolgatuk iñotsen.

Eskean dabillenean gosez eta egarriz egongo da, baiña lana beti baztertuko dau. Lagun askoa dauz, batez be edantegietan, ta oneik barre egin naian esaten dautse.

Kolgatu, lan egiteko nai, gogo bizi bizia ez dozu iñoiz zeure gorputzean nabaritu?

Bai, zelan ez, bein baño geiagotan be, Kolgatuk erantzuten dautse.

Eta olako unetan zer egiten dozu ba?, geldetzen dautse.

Zer egingo jot, ba, eutsi gizona, eutsi!

Atzo arrastian kalean zear joian gizon lodikote, ondo jantzita, jaseko bategana aurreraturik diru apur bat eskatu dautso, betiko leloa esanez, makal aurkitzen dala, egun osoa baraurik dagola..., guzti au aurpegi ilun goibelagaz, baiña une onetan gizonak bere izketa etenik diñotso.

Egun osoa jan barik zarala? Jan barik egoteko ez dozu itxura txarrik ba. Zun ohea dozu, Kolgatuk esan eutsan.

Obea, nik?, gizon lodikoteak diñotso, gura neuka nik zu lez argal-argal ego-tea.

Baiña, zer? zuk zer gura dozu ba, iñotsan Kolgatuk, zeuk jan eta ni loditu.

Azkenean gizon lodikoteak, esan eutsan.

Dirurik ez dauzkat emongo, baiña erdu neugaz edantegi batera ta bokadilo bat erosiko dauzkat.

Kolgatuk ez eban nai bokadillorik, dirua nai eban, eta iñotsan.

Ez, ez bokadillorik ez, diñotso Kolgatuk, diru apur bat eskuratzeko, zazpi bokadillo jan bear izan dodaz.

Au entzutean gizon lodikoteak, bost ogerleko emon eutsozan, eta Kolgatuk edantegirantz joiala bere baitan iñoan.

Zerbait edanda bost bokadilloak buztitzeko, buzti daigidazan, bost ogerleko oneik ondo jatorkidaz.

GABON SARIA

Gabon jaietan adiskide ta ongilei gabon-saria bialtzea oiturazkoa da.

Gabon egun arrasti baten nire andreagaz sendiko adiskidea zan Osagile bat agurtzen bere etxean aurkeztu giñan.

Jan-gelako mai ganean gabon-opari lez bialtzen diran otsara aundi bat jana-ri ta edari garestiakaz beteta ikusirik, itaundu neutsan.

Otsara eder ori, opari baliotsu ori, nok bialdu dauzku, ba?

Osagileak, nire adiskideak, apur bat lotsaturik esan eustan.

Eortzeketakoak, funerariakoak.

KAXKURRIO TA BERE ANDREA

Ipuintxu au Esopori irakurri neutsan. Greziako ipuinegile arek non jazoko eban ba, Plaentzin izan ezik? Izan be, erri onetan jazoten ez danik, ez da beste iñon be jazoten.

Baiña goazen arira. Emen be ez da guztia poza ta irribarrea, bestela ikusi andra-gizon oneen gertaera.

Edestu daigun ba, zeatz eta meatz, eta emakumeak parkatu orain be zuek txarto itxi, utxi, bearra. Nik ez dakit zergaitik, baiña beti zuok andrazkook dozue errua. Mexikon be gizonzekoei “Txarro” deiten dautse ta andrakoei “Txarra”.

Errekondo basetxean Kaxkurrio ta bere andrea, bata zu ta bestea ni, eztabaidan ebiltzan beti. Gizonak zerbait, apur bat, edan be egiten eban, eta andreak gizona mozkortuta etxera eltzen zan bakoitzean...

Ori da, ori gizona etxeratzeko ordua, ori da gizonaren ganorea ta ezitza. Zuk, etxea uztu ta edantegiak aberastu. Baiña ez, orrela ez da, egun baten amaituko da, egin bear dot egitekoa. Bai, egun baten neure burua erre kara bota bear dot eta kitu. Olan betiko atsedena izango dot.

Emakumea, andrea, orrelan ebillan beti, baiña Kaxkurrio be ez zan mutua, berak be sekulakoak bere andreari esaten eutsozan. Kaxkurrio ta Antoniren bizitza ezkondu ondoren olan zan.

Arik egun gitxitara Kaxkurrio egundoko mozkorragaz etxean agerturik, andrea gizona ikusi orduko oiuka asi jakon.

Mozkor,... mozkor... beti mozkorragaz.

Ixildu zaitez, txilin ori... ixildu, Antoniri bere gizonak esan eutsan.

Zer? Ni ixildu naitela ganera? Zu, mozkorti bat zara eta besterik ez zara ta neu ixildu... baiña egun baten ixilduko naz betirako...

Orrela balitz... zorionsua ni, iñotsan gizonak.

Zorionsua diño zu, zorionsu? Berealaxe neure burua ibaira bota bear dot... eta Antonik gelatik urten eban.

Jardun bai, Kaxkurriok esan eutsan.

Geiago barik, Antonik leioa idegi eta bere burua ibaira bota eban.

Arraio... arraioa! Kaxkurriok iñoan bere kautan, esan eta egin ganera. Ez neban uste egingo ebanik. Andra ona ez da, baiña orrelan ezingo dot itxi. Argi-ontzia artu ta andrearen bila urten eban.

Ibai bazterretik gora okullu guztiak arakatuz joian erriko adiskide biaz topatu zanean.

Adiskideak, Txomin eta Peru, Kaxkurrio ikusi ebenean beragana urbidurik itauntzen asi ziran.

Kaxkurrio, sasoi onetan argi-ontziaz anguletan zabiltz ala?

Ixildu zaitez, ixildu, Kaxkurriok iñotsen, nire andra ziztrifak bere burua ibaira bota dau, eta emen nabil bera aurkitu gurean.

Baiña Kaxkurrio, adiskideak jarraitu eben, zingirantz zoaz. Ez dakizu ba, ibaiaren urak berantz doazala? Ur-korrontak eroatekoan zure andrea berantz eroango eban.

Bai zera... Argi dago nire andrea ez dozuela ezagutzen. Zuek ez dakizue aren aurka-jokera. Orain be, ziur naz nire aurka egitearren gorantz egingo ebala. Gorantz joango zala. Orretan ez dot zalantzarik.

ASKO IKASI

Gaur goizean Aitortxu leenengoz joan da ikastolara.

Ikastolatik itzultzean bere ama urduri dago bere zain, itxaroten, eta besarkatu ta muzukatu ondoren esan eutsan.

Zer Aitortxu, asko ikasi dozu?

Larregi ikasi dodala ez dot uste, ama, biar barriro joan bear dot eta.

ORDUAN BAI, ORAIN EZ

Gudaetxeko gudari batzuk emoten eutsen janaria dala ta ez egozan bat be pozik. Euren kezka, asarrea janaria, emoten eutsen janaria apur bat mingoztuta egoalako zan. Zio orregaitik euren nagusiagana joatea, nagusiagan aurkeztea erabagi eben.

Kapitanagaz aurrez aurrez izan ziranean, esan eutsen.

Ara Jauna, azkenengo aste bi oneitan euki dogun bazkaria, mingoztuta ta ganera urria izan da...

Zer?... Nagusiak gudarien izketa eten eban, emoten dautsuegun janaria ona ez dala?... Napoleonen gudariak aldi aretan janari au euki ba eben, ludi, mundu osoa menperatuko eben.

Bai, egia dirauskuzu jauna, gudaritariko batek erantzun eutsan, baiña Napoleonen aldian janari au, emoten dauskun janaria, egin barria zan.

IKER ETA PEIO

Erreteak, zigarro erreteak, gaztetxuen artean asiera ez da izaten guztoko ta ondoriok be ez dira izaten naizkoak.

Iker ta Peio lagun eta ikastolakideak dira, mutikotxuak baiña zigarroari zurgaldi bat baiño geiago egiñak.

Gai onen buruz Ikerrek bere lagunari egun baten itaundu eutsan.

Zu Peio, leenengoz erre zènduanean zure urdailean miñik oartu zenduan?

Biramonean minduta nebana neure gorputz, soin, osoa zan.
Gauza bakana da ori...!
Bai, nire aitak emon eustan astiñaldiaren ondorioa zan...!

ZAZPI BAKARRIK

Aspaldion, azkenengo urteotan uri ta errietan, batez be itxasaldean, ikusten dira. Erri ta laterriak orren bidez, txangolaritza dala ta, diru-eskuratze politikak izaten dabez.

Dagonila zan, egun oso beroa, sargoritsua, urteko oporretarako aldi zoragarria. Itxasaldeko uri txiki baten txangolari ugari kaletatik zear ondartzarantz joaten ikusi al izan zan. Aitatu dogun bezela eguna ez zan bat be egokia, egun oso bero, astuna, sargoritsua izanik, txangolariak eta zelan ez urritarrak be izerditan eguraldia iguinduz, mar mar, kezkatu ebiltzan.

Txangolaritariko batek bere asarre, kezka aldian, uri beratako mutil bateri itaundu eutsan.

Zu mutiko, uri onetan ez da izaten iñoiz eurik, euri egunik?

Ara jauna, mutilak erantzun eutsan, nik ez dakit, nik zazpi urte baño ez dodaz, daukadaz.

TXANGOLARI AIZTUKORRA

Oraingoa be txangolari artean da... Bere oporretan atsedeen-aldi bat artu naian, txangolari bat uri aundi batera eldu zan. Ostaetxe eder baten bere egoitz barria ezarri eban, eta olako unetan bearrezkoak diran tresna guztiakaz osaetxetik urten eban, goiz baten urten eban.

Txangolariak uri aretako etxe aundi, ospetsu ta baita be bertako oroigarri guztiak ikusi naian, egun osoa uriko kaletatik zear okuilu guztiak arakatzen ibilli ondoren, iluntzean guztiz nekatuta ostaetxera itzulirik bertako artzailegana urreratuta diñotso.

Mezedez, zein gelatan nagon esango daustazu?

Bai, zergaitik ez, maitekiroz zintzoenagaz artzaileak erantsun eutsan, orain atarian zagoz.

LEGE-GIZONA TA ZERUA

Goiz baten Zeruko atetara Aita-Deuna ta lege-gizon bat bat-batera eldu ziran.

Atean deiturik, Kepa Deuna bereala agertu zan, eta bikote onen txartelak ikusirik, leenen leenen gela eder eta bikain batera lege-gizona eroan eban, tresna garesti ta ederrak, argazki baliotsuak eta pitxiz beterik egoan gela batera eroan eban.

Ondoren Aita Deuna gela oso apal, estu ta otz batera gidaritu eban.

Aita-Deunak Kepa Deunaren jokaera au ez eban ondo ikusi, ontzat artu, ta bere asarrea adierazo eutsan, esanez.

Ara Kepa Deun maitea, zure eginkisuna ez da izan bat be zuzena, Lege-gizonari niri baiño gela bikain, obeagoa emon dautsazu?

Ara Jauna, parkatu, gaur zerura sartu dan gizona lege-gizon berezia da. Zeru onetara leenengo sartu dan lege-gizona da, ta ulertuko dau berorrek, Aita Deunak asko daukaguz baiña lege-gizonik, ori, gaur sartu dana, baiño ez.

LAGUNTZARIK GURA?

Goizalde baten gabaz belu ta goizean goiztar, edantegirik edantegira gaba osoa emon ondoren, bere urdailan lagun eder bat eroala, gizon bat joian.

Bere etxera eldu zan, eta etxearen ate aurrean asi luze bat giltza sarrailluan sartu eziñik eroan. Ardao larregi, geiegi, edatearen ondorioa. Une beratan bertatik igaroten zan beste gizon bat gure sabudunari adi-adi apur baten egon ondoren diñotso.

Adiskide, giltza sarrailluan sartu daizuzan, gure dozu?

Ez, ez, ori ez da nire arazoa, baiña mezedez etxea eutsiko ba zeuskio mugidu ez daiten.

GIZON ZINTZO BAT

Nire erritar Joseba, antza zanetik, diruaz ez ebillen guztiz ondo, ordainketa

batzuk egin bear ebazan eta artzedun danakaz betetzeko diru naiko ez, eban lez, bere auzokide ta dendalaria dan Martiñegana diru eske joatea erabagi dau. Urre-ratu zan Martiñen dendara ta diñotso.

Martin, diru apur baten bearzanean naz, eta ogei mila ogerleko epe laburrean ordaintzeko, mezedez itxi al ba daustazuz, eskertuko zaitut.

Ogei mila ogerleko orreik emongo neuskizuz eta geiago be, pozik emongo neuskizuz, Martiñen iñotsan, epe laburrean niri ordaintekotan, baiña orretarako ze ziurtasun dot?

Gizon zintzo baten itza, berbea, eskagileak esan eutsan, gizon zintzo baten itza.

Ederto nago, esan eban Martiñek, ekarri eidazu leenago gizon zintzo ori ta bereala ogei mila ogerleko orreik emongo dautsudaz.

Diru-etxeak be bardin egiten dabe.

GIZON URKATUA

Au beste au, oraingoa, nire errian ez zan jazo, nire erritik oso urbil dagon uri txiki baten jazo zan.

Errekalde ezezagunez eritxon gizon batek, naigaberan bat aitzu gurean, gaur egunean nor da naigabe anbat gabea, bere burua ibaira botatzea erabagi eban.

Birritan asmatu gabe, goiz baten joan zan ibai ganera ta buruz-bera plaust ibaira bere burua bota eban. Antza danetik, ura bere guztokoa ez eban aurkitu ta uger egiñik ibai baztarrera urten eban. Errekalderi bear ba da uraren otzagaz bere naigabea arindu jakon, baiña legorrean aurkitu zanean, barriro itoteko zale-tasuna asmau eban eta bere burua ibaira bota, baiña oraingoa be ez zan ito.

Bere gurarirako ibaira burua botatzeak azken onik ez eutsola emoten ikusi-rik, lokarri, soka, bat artu eban, bere zaman lotu ta zubi ganera barriro joan zan. Orduan bai, zubitik dindilizka bizi barik an geratu zan Errekalde gure laguna.

Urian beingoan gizon bat urkatuta zubian aurkitu dabela, arin zabaldu zan.

Olako jazoeratan gertatzen dan lez, gorpua zubi ganera jaso eben, uriko agintariak jazoki izugarri ori zelan izan zan jakin naian, azaltzeko, asi ziran azterketan egiten ta autorgile bila.

Maurixio uritarrak, zubi inguruan notintsa piloturik ikustean, bertara urbil-durik, zer jazoten zan itaundu eban.

Errekalde zubian urkatuta agertu dala entzun ebanean, Maurixiok bere uritarrei esan eban.

Bai, bai, Errekalde zubian soka batetik eskegita, ikusi neban.

Au entzutean epaileak oso arrituta esan eutsan.

Baiña zelan, eskegita ikusi zendula diñoskuzu ta barri ori emoten zelan ez zara etorri ba?

Ara jauna, mela mela zubitik dindilizka ikusi neban, Maurixiok iñoan, ta... legortzeko jarri zala, eritxi jatan, legortu naian sokatik eskegi zala.

NOR JAKITUNAGO

Gregory Bateson Antropologo gizon ospetsuak, ume txiki baten gertaldi bat onelan edestuten dau.

Bein baten umetxu batek bere aitari itaundu eutsan.

Aita, gurasoak beti dakie umetxuak baiño geiago?

Bai semetxu, bere aitan erantzun eutsan.

Lurrunezko tramankullua nok ikertu eban, aita?, jarraian iñotson semeak.

James Watted, aitak erantzun eban.

Orduan, zergaitik James Watten aitak ez eban ikertu?

IL BEIN BAKARRIK

Beñiola Lekeitiora erria osasuntsua ba da jakiteko giza-zenbaketa, erderaz "Estadística" deritxona, egiteko asmuz udatiar bat, deustarra bera, eldu zan.

Bere zeregiña betetze naian an ebillen gura udatiarra Lekeitiarraei itaunka, esanez.

Adiskide, erri onetan sarritan ilten dira bertako notin, pertsonak?

Erritar: batzuk berak, udatiarrak nai eban erara erantzuten eutsen, baña Lekeitiar tolesgabe bateaz topo eginda, oneri be itaun bardiña egin eutsan.

Zu adiskide, erri onetan bertako notiñan sarritan ilten dira?

Ara jauna, erantzun eutsan, emen nire erritarrak bien bakarrik, soilki, ilten dira.

NIK EZ DOT BEAR ASKO

Azkenengo urte oneitan eta gaur egun be, langabetasuna arazo arduratsua da, ta batez be gazteeentzat. Baiña baita be ain gazte ez diran andra-gizonak, bai gure errian eta baita be ludi osoan, lan barik aurkitzen dira.

Arazo onen buruz barre egiteko zerbait idaztea, guztiz egokia ez da baiña gaurkoagaitik parkatuko daustazue. Gosea be barre egifik negarrez baiño oba izango da. Baiña goazen arira.

Mutil gazte bat, nire erriko mutil gazte bat, lantegirik lantegi egunero ebillen lan-toki bat billa. Bere ezaguna zan lantegi bateko nagusiana urreraturik, berak eban arazoa zuzentzen lagundu egiola eskatu eutsan.

Tamala da, lantegiko ugazabak esan eutsan, gaur egun ez gabiltz lantegian bat be ondo. Oraingoan lantegian lan gitxi daukagu.

Adiskide, ez larritu orregaitik, diñotso gazteak, nik ez dot bear lan asko.

BARTZELONARANTZ EZ

Bein baten, gizon adifneko bat berebil, kotxe, aundi eder baten, neskatila kirru, polit eta lirain bategaz Bilboko errepidetik Santandererantz joian.

Muzkiz ingurutik joiala basetxe baten aurrean, obeto esanda, alboan, bere kotxe dotorea gelditurik, basetxearen ate aurrean egoan baserritarrari itaundu eutsan.

Zu adiskide, bide onetatik ondo noa Bartzelonarantz?

Muzkiztarrak kotxe barnean joian neskatil lirain, ederrari begirakada eder bat egifik, erantzun eutsan.

Joan, joan, ederto, primeran zoaz, baiña Bartzelonarantz ez.

NI EZ NAZ ZU

Ludi, mundu, onetan garanok, astirik geiena erostaka, aieneka emoten dogu, besteari erruak, gure zoritxarren erruak ezarri naian.

Ber-ber ori jazoten jakon. Kabarra, jaunari be. Asarre bizian, kezkatu doa ibai gora Kabarra, ikatz beterik, mar marka iñoala.

Ez, geiago ez, naiko da. Bein baten neure burua itoko dot eta kitu. Ez dot ezelan be onelan bizi, beti azkenerarte zamatuta, ikatz zikin, baltz onegaz zamaturik ibaian gora ez dot geiago ibilli. Ezin dot geiago jasan.

Eroapen apur bat, gizona, nasaitu zaitez, begiratu eizu zure ingurura. Or dozun gure, arraiñen arerioak, or dagoz gu arrapau gurean. Konturatu zaitez guk, arraiñok, dogun arriskua, beti oso zain, adi-adi egon bear dogu, ustekabe txikienean, zast, kazuelatxu baten izan geintekoz. Eroapena gizona, eroapena. Onelan iñotson arrain eder batek gure ala, kabarra maitearei.

Baiña eroapena noiz arte? Bizi osoa olan? Onelan bizitekoan... oba da il! Orixe, il. Au da eziñaren eziña ta larritasunaren larritasun larria!...

Asarre zara, lagun, aineka, kezkatu, zoaz. Zuk daroazun ikatz astun eta zikin ori ta, ondorioz zeu be oso zikinduta, zaroedaz nik. Nik zer esango dot? ibaiak diñotso.

Bai baiña ni ez naz zu.

IRAKURTEN EZ

Aspaldion langabetasuna arazo oso gogorra da, batez be neska-mutil, gazteen artean. Zoritxarrez arazo au ez da gure errikoa uts utsean, ludi osokoa baiño.

Nire adiskide Iker or dabil lantegirik lantegira lan apur bat billa. Ingurueta-ko lantegietan bere naia lortu naian aurkeztu da.

Lantegi askotan dei egiñik, oneitariko baten lankide izateko itxaropen apur bat sortu eban.

Lantegiko nagusiak Ikerren jakituria zenbaterañoakoa zan jakin gurean, mutilari itaundu eutsan.

Zer, lagun, irakurten eta idazten ba dakizu?

Idazten ba dakit, jauna, baiña irakurten ez, Ikerrek esan eutsan.

Nagusiak ingi, orri, bat artu ta Ikerreri emon eutsan, esanez.

Ia, ingi, orri, onetan idatzi eizu zeozer, zeuk nai dozuna.

Ikerrek ingia ta arkatza artu ebazan bere eskuetan, eta irriborro batzuk orrian egin ondoren nagusiari emon eutsan.

Lantegiko nagusiak ingia ikusirik esan eutsan.

Orain idatzi dozuna irakurri eistazu.

Baiña, irakurten ez dakidala ez dautsut esan ba?

GAIZKI ZAINDU TA OSATU

Orain emen idatziko dodana abadetxe baten jazo zan, Deriokoan ez, urruneko baten baiño.

Abadetxeko ikasle bat, mutil gaztetxua bera, ogean gaixoturik aurkitzen zan. Naiz ta bertako osagileak alegin guztiak mutila gaizkatzeko egin, geroago ta txartoago zala ikusirik, Eleizakoak be emon eutsoezan, azkenean mutil errukigarria il-zorian konorte barik egoan.

Osagileak abadetxeko nagusiari osaki barri bat mutilari emoteko agindu eutsan, eta arek, osakiak eragin ongarririk agertzen ez ba eban, mutilak iltzat izango zala.

Abadetxeko nagusiak, bertako gaixo-zain bat eta ikasle-otsain bat zeregin onetarako aukeraturik, esan eutsen.

Ara mutilak.

Osagilearen agindua betetuz, gaixoari bonbila onetatik gabako amar eta erdietan kollarakada bat emongo dautsazue, ta gero ordu erdira beste kollarakada bat, amaitu arte, bonbilakoa amaitu arte, baiña aitzu barik. Ni biar goizean osaki onek gaixoari eragin ba dautso ikustera etorriko naz.

Gaixo-zaiña ta bere laguntzailea bakarrik geratu ziranean, aurrez aurrez mai baten jazarri ziran, errekin zorrotxua alboan, atara ebezan kartak eta tutean jokoan garratz asi ziran. Areik bai ziran pozik, euren gogo osoa jokoan eben, aitzu jaken inguratzen eben guztia, ludian eurak bakarrik bizi izango balitz bezela egozan. Ez jaken bururatzen ez gaixorik, ez Osagilerik eta ez Abadetxerik be. Bikote arek eskuetan erabilten ebezan kartak baiño ez eban beste ezer ikusten. Osaki bonbilea oge alboan itxita goizalderarte jo ta ke ekin eutsoen.

Alako baten gaixo-zaiña artu eban mezuaz gogoraturik, bere larritasuna estaldu eziñik, ikasleari esan eutsan.

Gure Jaun eta Jaungoikoa, gu gagozak mutil onak mutil. Gaixoari ondiño osaki onetatik kollarakada bat be ez dautsogu emon eta goizaldea da. Orain zer egingo dogu. Bonbillan geratzen dana emoten ba dautsu, gaixoa ilgo jaku, a zan larritasuna. Zer egin jakin-ezak eragiten dauan kezka, ardura mingarria gure bikotearena. Azkenean, oldoztu ta oldoztu izan ondoren, osakia irolatik botatzea erabagi eben. Erabagi ta egin.

Eguzkiak bere izpi alaiakaz eguna izartu ebanean, Osagilea gaixoa ikustera, ta abadetxeko ikaslea ain itxura onagaz ikusirik, bere zaindarici esan eutsen.

Mutila itxura oso onagaz ikusten dot, osakiak eragin dautso, itxaropen osoa dot, gaixoa osatuko da.

A ze astuntasuna gazte biak euren baitan arindu ebena. Poz aize gozoagaz euren birikiak bete ebezan.

NESKAMEA

Nire lengusu Aitor eraikitza dau bere ogi bidea, garazle ospetsu ta dirutsua da. Bere andra Mirenegaz bakar-etxe polit baten bizi dira ta ez dabe seme alabarik.

Miren andrea, aspaldion ez dabil bat be osasuntsu ta zio onegaitik neskame bat alogeratu dabe. Etxeko lanetan Mireneri laguntzeko asmuz neskame bat alogeran artu dabe.

Arik ile batzutara neskame negarrez etxeoandregana aurkeztu zan, esanez.

Etxe onetan ezingo dot jarraitu. Umedun aurkitzen naz eta umearen aitak zapuztu nau.

Miren oso biotz onekoa da ta esan eutsan.

Bai, emen jarraitu al dozu, geratu zaitez gugaz. Guk ez dogu seme-alabarik eta zure seintxua semetzat geuk artuko dogu.

Neskamea poz-pezik geraturik, umetxua bere sasoiari munduratu zan. Sendia pozik zan umetxuaz, bai Aitor eta Miren eta baita be neskamea.

Baiña arik urte bete ingurura neskameari bardiña jazo jakon, barriro umedun zan eta umearen aita barik.

Oraingoan be Aitor eta Mirenek umetxu barria, bigarrena, semetzat artu eben, eta neskamea eurakaz jarraitzen eban.

Arik irugarren eta laugarren urtean be bardin bardiña jazo zan, umetxuak zeatz etorri ziran, ta leenengoakaz lez Aitor eta Mirenek eurentzat seme bezela artu ebezan.

Bostgarren umetxua itxaroten aurkitzen zala, neskameak Mirenei esan eutsan. Etxe onetan zuekaz ezin dot geiago jarraitu, au larregi da, aurretizik diñotsuet datorren ilean etxe onetatik joango naz.

Baiña zergaitik diñotso etxeo andreak?

Gaur egun dodan lana gogorregi ta ugaria da, neskameak esan eban, zuk alogeratu ninduzun senar-emazte bat zaintzeko ta ez sendi anitz bat.

PITXAR GARAGARDOA

Erbesteko uri aundi batera egazkiñean giñoazala, egazkiñeko gidariak oituzko ongi etorriaren itzak esan ondoren, irrati-gailua ertsi, etentzea aitzu jakon, eta bere laguntzaile bategaz berbete jarraitu eban, iñotsola.

Ba dakizu orain zer guztako litzaket egitea? Leenen leenen pitxar bat garagardo ozkirri ozkirri edan eta gero azafata ule kurrudun lirain orren muzu bat artu.

Neskatileak au entzutean gorri gorri eginda nagusiaganantz abiatu zan, baiña egazkiñean joian atsotxu bigun bigun batek, abots bigunagaz diñotso.

Maitetxu, ez zaitetz larritu, leenago garagardoa edango dau.

BIR GIZATZEA

Emakume bi, urteetan naiko sartuta egozanak, alkar izketan ebiltzan. Euren alkar-izketa gaia bir-gizatzea zan.

Ez dakit, andratariko batek iñotsan, zelan naiagoko neukan ludira itzultzea, ilten nazanean, mundu onetara itzultea, aberats edo polit, ederra, lez.

Edozelan be, diñotso besteak, zuretzat aldakuntz nabarmena izango litzake.

ALPERKERIA

Nire auzokide Klaudi azpaldion oso asarre dabil Bere umeak jaramonik ez dautsoela egiten, diño.

Zure umeak Klaudi zer txar egin dautsue ba?, iñotsan bere adiskide Krexentzik.

Aa Krexentzi, ume oneik zeuk bazeunkoz, ez zauskit olakorik esango. Beti dabiltz olgetan. Ikasi dagien euren atsean ibilli bear dot, eta ganera nire esanak ez dabez egiten. Gitxi deritxozu?

Gaiztoak ete dozuz ba?

Gaizto gaiztoak, ez, baiña alperragoak... Beti eurakaz sarataka nire aginduak bete dagiezan ibilli bear dot. Zoratuta neukie? Zer egin eurakaz?

Klaudi, iñoiz Inasi alperraren ipuiña entzungo zenduan, ez? Krexentzik esan eutsan.

Ez nik. Zer ete dot ipuin ori entzuteaz?

Aditu eizu arren, gero esango daustazu ipuin orregaz ezer daukazu ala ez.

Iñasi, andrazko alper-alper bat zan. Lanik egin? Ez da aren be. Ez lurrik

landu, atxurtu, ez azirik erain, ez jantsirik josi, ez zurik biztu, ezer ezer be ez eban egiten. Aita-amak itxi eutsanagaz ez dakit zenbat urtetan bizi izan zan.

Baiña alako baten diruak amaitu ziran, Iñasi txakur txiki barik geraturik.

Jan-edana irabasteko lanean asiko ete jaku Iñasi ba? auzokideak esaten eban. Bai zera, lan egin, alper arek zirkiñik be ez. Auzokoak emoten eutsanagaz, apur aregaz bizi zan. Baiña auzokoak ta auzokoak ez diranak be, emoteaz arin gogaitzen dira, emon ezkeru ez da eukiten eta. Jan nai ba dau, lan egiala, beste batzuk egiten dogun lez, iñoen auzokideak.

Bai, lanerako egoan andrea. Berak lanik ez gura ebala egin eta lurpera bizirik eroan egiala auzokoei agindu eutsen.

Lurperatu bizirik? Zer diñoskuzu Iñasi? iñoen auzokideak. Baiña olan izan daiten nai ba dozu, zeuk gura dozun lez egingo dogu.

Iñasi nai eban lez egin eban. Auzokideak biotz-min asko barik, andrea andentan artu ta ortudeunarantz eroen.

Ilobitegira joiatzala erri beratako andra bat bidera urtenda, aurpegi larriaz itaundu eutsen.

Nor il jaku ba errian?

Il II? Guk dakigunik iñor be ez.

Orduan il-kutxa utsik daroazue ala?, andreak itaundu eban.

Ez utsik, ez, Atzazpeko Iñasi daroagu barruan.

Atzazpeko Iñasi, neure lengusiña? Ta bizirik daroazue?

Bai ba, beronek olan gura dau ta...

Iñasi! lengusiñek deitzen dautso, bizirik zaroe ilobitegira? Ez daukazu zer janik ala? Ez iezu olakorik egin arren. Neuk arto anega batzuk emongo dautsudz andreak jarraitu eban.

Eiota ala eio barik? kutxa barnetik Iñasik iñoan.

Eio barik andrea, eio barik, gitxi deritxazu ala? lengusiñak esan eutsan.

Olan ba da, Iñasik jarraitu eban, aurrera mutilak, ilobitegiraño. Ni ez nago arto-garaunik eioteko, eta Iñasi alperra ilobitegira bizirik eroan eban.

Orain, Klaudi, Iñasin ipuiña entzun ondoren, esan eidazu Iñasin aiñako alpertrak zure umeak dozuzan.

Orren bestean be... orren bestean be... Baiña ba dakizu ba... Klaudik esan eban.

Bai Klaudi, ba dakit nik zure semeak langileak dirala. Ez zuk bestean, baiña ba dakit. Erosta geiago ez eizu egin. Eta iñoiz olakorik siñistuten gaitz egiten ba jatzu, Iñasi zure gogoan izan eizu, ia aren, Iñasin, antzik zure semeak alperkerian ete daben.

Klaudin aurpegian irribarre gozo, alai bat agertu jakon, bere espanetan au entzutean irribarre alai bat agertu zan. Baiña erosteia, erostatxua Klaudik be, aita-ama guztiak lez.

BEDAR BIKAIÑA

Arantza ta Miren auzokide ta adiskideak dira, nekazaritza da euren lanbide ta ogi-bidea.

Astero Larunbat egunean utsik egin barik, euren erritik urrun zamar dagon urira barazki ta basetxeko beste uzta batzukaz joaten dira. Emen idatziko dodana jazo zanean, neskatil gazte biak Udabarriko Larunbat eguzkitsu ta alai baten otsarakada basetxe jakiakaz buruan eroazala uriko enparantza, azokara, joiazan.

Arantza etengabeko mormorxetan, asarre, kezkatu joian ostera bere adiskide Miren abeslari, oso alai, bidaia barrez eta abeslari egin eban.

Bere adiskide Miren ain alai, pozik, abeslari ikusirik, bidai oso olan egiñik, Arantzak esan eutsan.

Olan barreka, alai, gogo onez joateko, zer zorion jazo jatsu ba? Zure otsarakadea nirea baiño ariñagoa ez da, eta beste alde batetik zu ni baiño indartsuago ez zara.

Ara Arantza, nik buruan daroan otsaran zama arintzen dauan bedar bikaiña daroat, Mirenek erantzun eutsan, eta orregaitik otsarea igarri barik daroat.

Benetan bedar ori bikaiña izan bear dau, Arantzak iñotsan. Ba, ez dakit zer emongo neuken bedar ori eukitearren, nire otsarakadea arindu daistan.

Mirenek jarraitu eban eta esan eutsan. Ara Arantza, zama guztiak erindu ta neke guztiak gozotu al izateko indarra jarritzen dauan bedarraren izena auxe da, Eroapena.

Zama aztunenak

Arinduko dozuz

Eroapenagaz

Artzen ba dozuz

EGIÑAK LAPURTU

Isuski-saltzaile bi egunero uriko kaleetatik zear isuskiak saltzen saiatzen ziran.

Euretariko batek isuskiak bost errelean saltzen ebazan eta besteak bere isuskiak lau errelean.

Bost errelean saltzen ebazana oso urduri, kezkatu ebillen. Nire burukideak zelan isuskiak, bere baitan iñoan, lau errelean, ain merke, zelan saldu leikez?

Isuski-saltzaileak, egun baten uriko kaletatik zear euren salgaiak saltzen ebiltzala, topo egin eben, eta alkar-izketan asi ziran. Euretarike batek beste saltzaileari iñotsan.

Adiskide, ez dot sumatzen isuskiak zelan lau errelean saldu daikezuzan? Ara, nik gaiak, isuski gaiak lapurtu egiten dodaz, isuskiak egitea, neure eskulana uts utsean da koskatzen jatana. Zuk zelan saldu daikezuz lau errelean isuskiak, nik bost errelean salduta ia irabasterik ez ba dot?

Ez zaitez larritu, gizona, guztiz erreza da, erantzun eutsan. Nik, eginda dagozan isuskiak lapurtzen dodazalako.

EZKONTZA

Andrazko gazte bik uriko kaletatik zear joiazala alkarregaz topo egin eben. Iru bat urte ziran alkar ikusi ebela ta jakifia, ba eben alkarrei zer esan.

Euren alkar-izketan euretarike batek diñotso besteari.

Zelan Pantxike, Zelan da zure bizitza? Ez diñostazu ezer, alako zure maitasun izugarriaren buruz?, zure Kepa kutunatzaz?

Ixildu zaitez, Miren, ez eistazu aitatu be, erantzun eutsan.

Zer ba? Asarratu zifien ala?, leenengokoak jarraitu eban.

Bai zera... Urte bi luze dira ezkondu gifiala.

IDAZKARI TA ERROTARIA

Usifia errotako Ander eta erriko idazkari Maximo, naizta beti alkar zirikatzen jardun, adiskide benetakoak dira.

Bikote au beti ebillan txantxetan, alkarrei adarra jo naian, eta asmu onegaz egun baten idazkariak errotariari esan eutsan.

Ba dakizu Ander, zer entzun dodan.

Zer entzun dozu ba? Anderrek erantzun eutsan.

Zerura errotaririk ez dala joaten, entzun dot, idazkariak esan eutsan.

Errotariak bere buruko uleak igurtzirik, nasai nasai, geldiro geldiro erantzun eutsan.

Nik ez diñotsut ugari joaten diranik, baiña bat, errotari bat, zeruan sartu zala, zeruratu zala, bai.

Barreka, idazkariak, jarraitu eban, eta zelan izan zan ori ba?

Oraintxe bertan adierazoko dautsut, alan izan zan.

Errotaria bere ludiko egite-zorrotxuaz zeruko atarian aurkezturik, zerura sartzeko baimena ate-zaiñari, zeruko ate-zaiñari, eskatu eutsan, esanez.

Ni Larrotako Maurixio naz, eta nire ludiko egikisun-zorrotxuaz emen nator-tzu, jauna. Zeruan sartzeko baimena eske natortzu jauna.

Arraio arraioa!... Errotari bat zerura, ate-zaiñak esan eutsan, azkenengoz zeruratu zan errotaria, ez naz gogoratzen noiz izan zan. Gertaera bakan au beki-tosanuen ezarrita geratu daiten, liburuetan ezarrita geratu daiten, jazoki onen gora-berak artu bear ziran, eta jakiña, zeregin au betetzeko idazkari bat bear-bearrezkoa zan.

Bere laguntzailei ate-zaiñak, zeruan zear idazkari bat billatu egiela, ta ainbat lasterren aurkeztu eitela, agindu eutsen.

Ate-zaiñaren laguntzaileak naizta luzaro zeruan okullu guztiak arakatzen ibilli, idazkari battxu bat ez eben aurkitu. Ate-zaiñaren laguntzaileak alegin guztiak egin, idazkari baten billa alegin guztiak egin, guztia alperrikoa izan zan. Zeru osoan idazkari bat be ez zan aurkitzen.

DIRUA BERTAN ITXI

Beñola, lapur bat bere zeregiña betetzen saiatzen zala arrapau, eta bereala epai-etxera eroan eben.

Lapur au, lapur berezia zan, sartu zan etxean ikusi ebazan gauza geienak lapurtu ebazan, ostera dirua bertan itxi eban, ukaturik be diruari ez eutsen egin.

Jazoriko onen auzia eldu zanean, lapurrari epaileak itaundu eutsan.

Baiña, zelan izan da ba ainbeste gauza etxe aretan lapurtu ta diruari ukutu-rik be ez egitea? Dirua bertan itxi?

Zu be, epaile jauna asarre nigaz, lapurrak esan eutsan. Nire andrea be dirua bertan itxi nebalako asarratu da nigaz.

ADIGABEA

Andrazkoak ez dira soilki, uts-utsean, adigabeak gizonezkoetan be ba dira olako izakiak. Orain ikusiko dozue, On Ujuniori zer jazo jakon.

On Ujunio gizon langile, zintzo bat da, bere sendi, Edurne bere andrea ta seme-alaba biaz bizi da. Diru-etxe bateko langilea ta bere lankidetatik ondo ikusia da.

Joan astean, goiz baten bere andreari esan eutsan.

Edurne, gozaria, akeít-esnea, egon-gelara eroan eistazu. Egunkaria irakurten dodan bitartean gozalduko dot.

Edurne bere andra maiteak olan egin eban. Egon-gelara gozaria eroan eutsan On Ujunio egunkaria irakurten gogotsu egoan, egun aretan irakurten ebazan izparretan egoan bere zentzun osoa. Akeít-esnea amaitu ebala konturatu zanean, bere andreari esan eutsan.

Laztana, beste akeít-esne bat atara eistazu mezedez.

Edurne, bere andrea, egunero lanera joaten dan ordua igarota dagola ikusirik, arrituta, larriturik diñotso.

Baiña Ujunio maitea, ba dakizu zer ordu dan? Gaur ez dozu joan bear lane-ra, ala? Zein jai da gaur ba?

Arraio arraioa! Errekontrol, gizonak esan eban, lanean, lantegian, nengoala uste neban.

AROTZ GITXI-JAKITUNA

Nire auzokide Batzi arotza da. Erri txiki bateko arotz gitxi ikasia, erritik be iñoiz erbesteratu bakoa, baiña ezjakintasuna ta bere izakeara apal, motela ez dau eragozpenik bere sendia jasekoz eroateko.

Ostera On Manolo gizon aberats, lege-gizona, erritarrak jakitunatzat dabena. On Manolo etxe bizileku bakarreko baten, ari ormaz inguratuta dan baratz loratsu baten eraikita dagon etxe dotorean bizi da.

On Manolo gizon jakituna ei zan, baiña baita be aitzukorra. Ara bein bate zer jazo jakon.

On Manolo bere etxean txakur eta katu bat daukaz, eta egia esan abere oneik On Manolok asko maite, eta ondo zaintzen dauz. On Manolo gabeen afaldu ondoren bere sendiaz alkar-izketa luzea eginda ogeratzen danean, etxeko ate

nagusia ertsi ta nasai joaten da ogera, baiña katu ta txakurragaz ez da gogorazten eta kanpoan itxiten dauz. Oneik, katu ta txakurra, gabean kanpoan egoten gogaitzen diranean, etxean barneratzea nai izaten dabe, ta ikusirik ezin dabela lortu, ezin dirala sartu etxera, bata miauka ta beste zaunka, ausika arik eta On Manolo jagi ta atea idegi arte jarraiturik, etxagunaren asarrea lortzen dabe.

Arazo au zuzentzeko, au da txakurra ta katu akanpoan geiago geratu ez daitezcan, etxeko atean zulo bi egitea erabagi dau. Bata katuarentzat txikia, ta beste bat aundiagoa txakurrarentzat. Bere naia betetzeko On Manolo Batxi arotzari deiturik esan eutsan.

Batxi, nire etxeko ate nagusian, txakurra ta katua etxe barnera sartu daitezcan, zulo bi egin bear dozuz, bata txikia katua sartu daiten eta bestea aundiagoa txakurra etxeratu daiten.

Au entzutean Batxik bere izakera apal, makalagaz, astiro astiro esan eutsan.

Jauna, berorren naia, agindua, betetzeko, txakurra ta katua gabean etxeratu daitezcan, zulo bat egitea naikoa da. Txakurra sartu al izateko aiñako aundia, ta zulo orretatik katua errez sartuko da.

Arrai arraio, On Manolok iñoan, egia dozu, egin zuloa Batxi zeuk nai dozulakoa.

ZIGORRA

Mutiko bi ikastolako jolas orduan, alkar-joten, muzturrak berotzen ebiltzan. Onetan irakaslea agerturik, mutilei esan eutsen.

Ala biok ikastolara ta zigor bezela bostaun bider bakoitzak bere abizena idatzi bearko dau. Zigor au bete arte etxera ez zarie joango.

Irakasle jauna, ez da eskubiderik orretarako. Ori bidegabekeri aundia da, esan eban batek.

Zer dala ta da bidegabekeria? garratz irakasle iñotsan.

Orren abizena Ea dalako ta nire Gabikagogeaskoa.

JOXANTONEN BEORRA

Joxantonek bere lurgintza lanetarako beor bat eban, eukan.

Goz baten beorra lanerako gertzzen egoala bere amagiñerrabea urreratu jakon, zerbait esan gurean urreratu jakon, ta une beratan beorrak ostikada bateaz andra errukigarria lurrera bota eban. Gertaera mingarri onen ondorioz andre osaetxera eroan bear izan eben, bertan ilteko.

Biramonean, ilda urrengo egunean, erriko eleizan iletak, Joxantonen amagiñerrabearen iletan izan ziran, eta elizkisunetan notintsa aundia batu zan.

Olako jazokeratan izaten dan lez, elizkisunaren ondoren, erritar ugari Josantonegana urreratu zan agur-samiña agertzen. Azkenengo agur-samiña ezkongai batena izan zan, mutil gazte egun batzuk barru ezkonduko zana, eta esan eutsan.

Joxanton samin-aldi onetan gura dautsut.

Eskerik asko biotz biotzez, Joxantonek erantzun eutsan, zu zaitut adiskide bakarra.

Zelan ba? Ni soilki adiskide bakarra? Besteak, zugana urreratu diranak, zer esan dautsue ba?, itaundu eutsan, bere adiskideak itaundu eutsan.

Joxantonek guztiz naigabetuta, esan eutsan, ia beorra saldu gura dodan.

SEMEA

Patxo nire auzkidea, gizon beartsu, bere urdaila geienetan bordalari gabe izaten ebana, erriko jaietan abadearen etxera bazkaltzen joatekoa mezua eban.

Egun orretan, jai egun orretan, abadearen etxean erriko alkatea, idazkaria, osategiko ugazaba ta beste erritar jauntxu batzuk, batu ziran.

Patxok, bere antzera erdi-gosez izaten zan seme bat eban, eta naizta bazkari orretara deitua ez izan, danakaz maikide izatea, bere semea maikidea izatea gura eba.

Bazkal ordua eldurik, maikideak mai inguruan jazarri ziran eta oitura dan lez, jakiak jaten asi baiño leenago, bedeinkatu bear ziran.

Egikisun au betetzeko Patxo izendatu eben, eta gure Patxo bedeinkatzea, maia bedeinkatzea olan egin eban,

aitaren eta Espiritu Santuaren izenean...

Patxo, Patxo! abadeak eten eutsan, bedeinkatzea, mai burutik iñotsan, semea non itxi dozu? semea?

Arraio, arraio, egia esan be... eta berealaxe leiotik bere burua kaleraturik, leiopean egoan bere semeari esan eutsan.

Seme, seme! etorri zaitetz bazkaltzera, erdu bazkaltzera, abade jaunak zure utsa nabaitu dau eta.

Egun orretan Patxo ta bere semeak euren sakeletan egun batzutarako beste ba eroen.

EZKON BARRIAK

Iñazio ta Pantxike ezkondu ondoren oiturazko ibilaldia egitera joan ziran. Erderaz luna de miel deritxona, asti laburra ain zorionsua izanik. Gure andra-gizonok ondo ibilli ziran. Kanarias izaroan, ondo jan, obeto edan, atsedean ugari ta guztia iñok gertuta. Ori da, bai, biziera, baiña amaitu jaken.

Iñazio ta Pantxike etxera itzuli ziran, eta leenengo goizean, Iñazio goiztar jagirik, ogetik jagirik, ixil ixilik andrea Pantxike izartu ez daiten ebillen. Etxea zeatz apaindu eban, Iñaziok etxea apaindu eban, gozari bikaiña gertatu ta azpil polit baten ezarrita, Pantxikera ogera eroan eutsan.

Oooo... nire gizon maitea, Pantxikek esan eutsan, nabaritu zaitut etxeko lanak egiten, beraz polita egin dozuz. Mila esker laztana.

Bai, etxeko lanak egiten ba dakit, gizonak erantzun eutsan, baiña gaur egin dodana, gaurko lana ikas-bidetzat izan daizun egin dot, eta biartik aurrera, gure maitasuna eten ez daiten, zuk egin bearko dozuz.

NI BELGIKARRA NAZ

Orain idatziko dodana Prantzin jazo zan. Egun baten gizon bi alkar-izketa mamintsuan egozan. Goizeko irurak ingurua zan eta euretariako bat naiko argituta izanik, bere alboan-egoan mutil gazte bat zirikatzen ebillen.

Azkenean mutillak azperturik, mozkortiari iñotsan.

Mezedez itxi naizu baketan, guztiz mozkortuta zagoz. Naiko da. Olan edateaz txarto egiten dozu. Ez dakizu urtero milaka prantzez edari gogorrek edateagaitik ilten dirala? Orrek ez zaitu bildurtzen?

Ezelan be ez, mozkortuak erantzun eutsan.
Egiz diñozu ori? Zergaitik ez? itaundu eutsan.
Ni belgikatarra nazalako.

ARLOTE BI

Beñiola, ez dakit zein urteetan, ez da zein erritan be, arlote bi, biak aundiak, gorputzez ez ba ziran be, bai arlotekerian, edantegi batera joan ziran eta zekulako mozkorra arrapu eben.

Nozbait edantegitik urten eben, gabean belu, goizaldean goizetik, sabu-sabuka erriko eleiz ondora eldu ziran. Eleizeaz topo eginda, eleizeaz topaturik, aurrera jarraitzeko biderik ez eban aurkitzen, jo batera zein jo beste aldera beti eleizeaz topo egiten eben, eleizako ormakaz aurkitzen ziran.

Shanti, au da mozkortuta zan baten izena, aurrera jarraitzen, gure bidaian aurrera jarraitzen eragozpen gaitun eleiza au, gura dozu bultzaka alboratu daigun?

Nai dozuna, erantzun eutsan besteak.

Bereala gure bikoteak euren soñietik kendu ebezan jakeak eta baztar baten jarririk jakeak, jarririk, bultzaka asi ziran, aupadaka esanez, aup... aup.

arik ordu lauren ingurura euren ezagun bat, erritar bat, leku beratatik bere etxera joiala Shanti ta bere laguna indarkada ta aupadaka ikusirik, barre algarak oztaz oztaz gordetzen ebezala, indartsuen jakeak artu ta aldendu zan.

Bikotea aupadaka jarraitzen eban, baiña alako baten apur bat baiño geiago nekatuta, Shantik bultzatea etenik jakeak itxi, jarri, ebezan tokira begiratu eban, eta jakerik ez ikusirik, bere lagunari esan eutsan.

Txomin, apur bat baiño geiago alboratu bear izan dogu gure eleiz au.

Zergaitik diñostazu ori, Shanti?, galdetu eutsan besteak.

Ba, gure jakeak urrun gelditu dira, ikusi be ez dodaz egiten eta.

LEONZIO ZIMELA

Artean antziña zan Arteta izena eban baserri bat. Beratan Zimela eritxon aguretxu baserritar bat bizi zan.

Gizon au, Zimela, bere zaartzaroaren ganera gaixo zital bat izanik, ogean guztiz txarto egoan. Bere bizia ondo izan ebana zan, baiña urteak, naizta norberak ez nai izan arren aurrera joaten dira, beste alde batetik betirako egiñak be ez gara ta, olako une larriak eroapenez eroan bear dira.

Etxezoek, Zimelan sendiak, abadea alik ariñen etorri bear ebala erabagi eben. Olako orduetan zer jazoko dan be ez da jakiten, eta Leonzio, au zan Zimela gure ipuiñ onen aintzanindariaren izena, abadea eetxean bere aurrean eukitea egokia zala, uste eben.

Areteta basetxean abadea bereala aurkezturik, On Zeledonio eritxon, gaixoagana urreratuta, autortza egiteko asmuz asi jakon itaunka.

Esan nigaz Leonzio.

Bizi bedi Jesu gure Jauna, iñotsan abadeak, bizi bedi Jesu gure Jauna, Zimelak erantzun.

Il bdei Satanak, abadeak, Agurea ixil ixilik.

Esan barriz bizi bedi Josu, abadeak, bizi bedi Josu Zimelak.

Il bedi Satanak, abadeak, Leonzio ixil ixilik.

Olan sei itaunkan jarraitu eben. Leonziok Satanaz ez eban il nai. Azkenean abadeak esan eutsan.

Zergaitik ez dozu erantzuten, Il bedi Santanak ba?

Ara Jauna, Zimelak abots bigun-bigunagaz iñotsan ba... ez dakit beragana laster joan bearko ba dot, eta ez neuke bere gorrotorik jaretsi nai.

Toki guztietan adiskideak euki bear dira, etsaiak eukitea baiño oba da ta.

BIKAIN TASUNA

Nire erriko abadea Igande goiz baten oiturazko Mezan itzaldia egiten saiatzen zan. Egun orretan itzaldiaren gaia bikaintasuna zan.

Ludi, mundu, onetan danak pekatariak izanik, iñoan abadeak, eziñezkoa zala bikaintasun osoa iñok jaretsi al izatea. Luzaro ebillen izketan, eta azkenean entzulei itaundu eutsen.

Zuen artean bikain bat ba dago, jagi daitela.

Abadeak arrituta ikusi eban zaelan gizonatariko bat bere jezarlekutik jagiten zala. Abadeak garats esan eutsan.

Baiña zelan ausartzen zara emen danan aurrean bikaintasun osoaren jabe zarala esaten?

Ni ez jauna, ni ez naz bikaintasunaren osoaren jabe. Ni, nire andrearen leengo gizonaren orde z jagi naz.

ZORO-ETXEAN

Zoroetxe batera osakidetzako ikerle bat bertako gora-berak izterkatzen joan zan.

Zoroetxeko zuzendaria gaixoetxeko azalpenak agertzen ebilkion, eta olan iñotsan.

Nik gidaritzen dodan etxe onetan joan dan urtean aurrerakuntza bereziak gaixoak izan dabez. Begira andik guganantz datorren gizona. Leen esaten eutsoen gutzia siñisten eban, baiña orain osatuta da.

Zuzendariak osatuari dei egiñez diñotso.

Ba dakizu, atzo Iñaki kotxe-gidaria, izugarrizko ezbear bat izan dauala? Kotxean joiala zugaitz aundi bat jo ta burua soiñetik aldendu jakon. Iñaki bere eskuakaz burua artuta, ariñeketan bizartegira joan zan ulea moztu egien. Zer deritxazu?

Zuzendari jauna, eziñekoa deritxat. Atzo Asteleena zan, eta Astelenetan bizartegietan ez dabe lanik egiten.

LANERAKO GOGOA

Joseba lanerantz joiala bere lankide bateri diñotso.

Arefiegun oporretatik etxera eldu nintzan, baiña nire lanerako gogoa datoren asterarte etorriko danik, ez dot uste.

EZKONTZEKO AUKEREA

Peiok uste dau ezkontzeko sasoa eldu jakola, baiña ondiño zeifiegaz ezkonduko dan ez daki.

Joseba bere adiskideari bein baten iñotsan.

Aukera bi dodaz. Bata, andrazko bat, alargun aberatsariko bat da, baiña ez dot maite. Ostera, bestea neskatil polit, alai, biotz onduna, maite dot, baiña txiroa da. Zeifiegaz ezkondu bear nazala, uste dozu?

Arraioa, itaun erantzun zailekoa da, baiña olakoetan, nire eretxiz, biotzaren eragiñari jarraitu bear jako. Txiroagaz ezkondu zaitez. Josebak iñotsan.

Eskerrik asko Joseba, oritxe egingo dot, zure aolkua beteko dot, txiroagaz ezkonduko naz, Mila esker. Eztegora deituko zaitut.

Zu Peio, alendu baiño leenago, alargun ori non bizi dan esan eistazu, Josebak esan eutsan.

ADIN NAIKO

Sendi arteko batzar baten, batzarkidean barriketa gozoan egozan. Euren alkar-izketa gaia adiñarena zan. Adiñatzaz jarduten eben.

Olako unetxu baten urteetan naiko sartuta zan andrazko batek, bere alboan egoan gizonari esan eutsan.

Zuz zenbat urte ezartzen daustazuz?

Nik, bat be ez, gizonak esan eutsan, aldean daroazuzanakaz naikoa dozu.

PANTXO VILLAREN SEMEA

Orain idatziko dodana, Maxikon jazo zan. Laterri aretako zuzendaria Pantxo Villa ospetsu izan zan aldian.

Pantxok, aita-ama danak gura izaten daben lez, bere semea lanean toki egoki baten izatea nai eban.

Bere jaurleritzako ministro bateri deitu eutsan iñotsola.

Or doatsu nire semea zura idazkaritzan jarri daizun. Beragaz zer egin ba dakizu, Ondo artu ta aloger ohea ordaindu.

Arik egun batzutara ministroak deitu eutsan, Pantxo Villari deitu eutsan. Leendakari Jauna, zure semeak idazkaritzarako ez daust balio. Ez daki ez idazten ez irakurten.

Ori, arazo ori, errez zuzendu leiteke, Pantxok erantun eutsan. Zeu idazkari lez jarri zaitez ta semea ministro lekuan jarri daitela.

Gogo onez, arazoak ze errez zuzentzen diran.

AITAREN SMOKINGE

Sendi bateko umetxuak, bere aita-amak jai batera joateko jantziten egozala ikusirik, bere aitari esan eutsan.

Aitatxu, soñeko ori ez zeunke ipiñi bear, smoking ori ez zeunke jantzi bear. Zergaitik, alabatxu? bere aitak iñotsan.

Ba dakizu soñeko ori jantziten dozun bakoitzean, biramonean buruko min izugarria izaten dozula.

ASMAKISUNA

Ikastetxe-nagusiak, bere ikasle baten argitasunak onen aita-amari bialdu eutsezan, iñotsola.

Mutil ona eta azkarra da, bere ikasketak ondo daroaz, bere ikaslekideekaz jasekoz jokutzen dau, baiña neskatil gazte, politaenetan arreta larregi jarritzen dau. Griña ori kenduazoteko zerbait aurkituko dodala, ikertuko dodala, uste dot.

Arik egun batzutara irakasleak mutilaren amangandik eskutitz bat artu eban, esanez.

Irakasle jauna, nire semeak neskatil poli, liraiñagan dauan griña ori kenduazoteko osakia aurkitzen dauanean, mezedez bialdu bedi, Gura neuka nik, neure gizonagaz saiatu.

LAN ASTUNEGIA

Espetxeratua zan gizon baten andra espetxeko nagusiana egun baten aurkezturik, bere gizonak lan larregi egiten ei ebalako bere asarrea agertu eutsan, esanez.

Jauna, nire gizona gaur oso nekatuta aurkitu dot, lan ariñago bat ezarri bear zeunkio.

Baiña zelan egon leiteke nekatuta, ez ba dau ezer egiten, egun osoan etzunda ezer egin barik egoten ba da, espetxeko nagusiak erantzun.

Bai, ba dakit egunez ez dauala lanik egiten, baiña gabaz menzulo bat egiten saiatzen dala esan daust, andreak esan eutsan.

GERRESTUA

Lapurtxu, lapur txiki bat, txikia ez gorputzez, lapurketa txikerrak egiten ebalako baiño, auzi-epailearen aurrera eroan eben. Bere erru, oben, guztia gerrestu bat lapurtzea izan zan. Auzi-epaileak ezagutzen eban, eta ikusi orduko esan eutsan.

Orain be gerrestu bat lapurtu dozu, ez? Orain iru urte zio bardiñagaitik zigortu zindudazan.

Lapur errukigarriak, abots makal, minuaz erantzun eutsan.

Jauna, auzi-epaileari iñotsan, gerrestu igatu batek zenbat denpora iraun leikela, uste dau berorrek, ba?

ADIGABEA

Nire osaba Antton gizon oso adigabea da. Ara orain egun batzuk zer jazo jakon.

Idi bikote bat erori bear ebala ta Basurtoko azokara joan zan. Idiak erosi ondoren, erosketa onuragarria egin ebala ta ospatzeko asmuz eta etxetik kanpo jateko aukera ezin ohea izanik, jantetxe baten sartu zan. Ederto bazkaldu, akei-ta ta txolatxua, muzturrean txokor bat or doa nire osabea kalerantz, baiña kale-ratu baiña leenago jantetxe beratan jaten egoan gizon sendo bat urreratu jakon, eta esan eutsa.

Parkatu, lotsez, bigunki esan eutson, zu Joseba Uleragoitia zara?

Nire osaeak, arrituta erantzun eutsan.

Ez, ni Antton Golzarri naz, baiña zergaitik itaun ori?

Ba, ni bai, ni Urelagoitia naz, eta bere gerrestua daroazu soñiean.

ATERKIÑA

Gizonezkoetan be ludi, mundu onetan ba dira gizon barregarriak. Orretariko bat nire auzunean ezagutzen dot. Errian Mikel Lukur deitzen dautse, ta egia esan, ezizena ederto datorkio.

Sarritan bezela, joan dan astean bere andreaz etxean oiuka ebilen. Asarre onen zio izugarria aterkiña ez aurkitzea zan.

Non dago nire aterkiña?, ez dot aurkitzen iñon be?, garrats iñoan

Onetan andrea konturatu zan, zelan aurrerako egun baten bere adiskide bateri aterkiña itxi eutsola.

Parkatu, iñotsan bere gizonari, areñegun euri nabarmena zan eta neure adiskide Iñasiri aterkiña itxi neutsan.

Ederto egiña, gizonak oiuka iñoan, barrero geiago aterkiñ ori ez dot ikusiko. Ziur naz, aterkiña geiago ez dot ikusiko.

Olakorik ez eizu esan be, bere andreak, baretu naian iñotsan.

Ez dot esango ba. Orain iru ilabete euritse aundi baten bere etxe aurretik aterkin barik igaro nintzanean, Iñasi berak aterkiñ ori itxi eustan, ta ziur aterkin barik geratu naz.

LOTSEA BAI, DIRURIK EZ

Egun baten, etxetik urtenda erriko kaleetatik zear joaiala, gizon bat bere adiskide bateaz topo egiñik, onek, adiskideak esan eutsan.

Zu, Peru, azpealditk amar mila laurleko daustazuz zor, Noiz ordaintzeko uste dozu? Zuk ez daukazu lotsarik, oso asarre iñotsan.

Bai, ba dakit amar mila laurleko zor dautsudazala, eta bat be gorritu barik jarraitu eban. Jakin eizu lotsea ba dodala, baiña dirurik ez.

SAMINTASUNA

Nire erriko neskatil gazte aurrera-urten batek, ezagutzen ez ean mutil bateri itz, berba, egiten ausarturik, maiteminduta galdetu eutsan.

Andragaia eukiko dozu, ez?

Ez, nik andragairik ez dot, mutilak erantzun.

Ez? diñotso neskatileak, ori da samintasuna, ain mutil jasekoa ta andragai barik.

Mutilak jarraitu eban, neskatileari esanez.

Ni gizon ezkondua naz.

Au entzutean neskatileak oso atsekabetuta diñotso.

Ori askoz be samiañoa da.

GUZTITARIKOAK

Brasilgo Minas Gerais deritxon erri ta inguruetatik atsedean aldi emotera bere kotxe, berebil, dotorean Estatu Batuako gizon bat joian. Ibilaldi luze bat egin ondoren txangolaria gosez eta egarriz aurkitzen zan, eta bardin zamar bere kotxe, berebila be jazoten jakon, ba naizta oneik berebil deitu, berez ez dabiltz, orrexegaitik, su-bultziaz ornitze naian geltoki baten geratu zan.

Toki beratan, andrazko bat gozoki, edari ozkirriak eta ogi-bitarteko, bokadi-lloak, saltzen saiatzen zan.

Ogi-bitartekoak ez eukan itxura jasekoa, baiña gizona gosez erdi-ilik egoan, eta andreari itaundu eutsan.

Ogi-bitarteko oneik, zelakoak dira?

Guztitarikoak dira, batzuk gaurkoak dira, gaur egiñak, beste batzuk atzokoak eta besteak areñegunekoak...

TXANGOLARI JAKITUNA

Gure itxasaldeetan Udan txangolari ugari izaten dogu. Onetariko bat, txangolari bat, Lekeitio erri polit, ederrean, udatiar bat agertu zan. Gizon au txangolari berezia zan, ikerle, idorotzaile ta idazle oso ospetsua. Ludi osoan zear guztiz ezaguna ta txalotua.

Erritxuetan, ipuin onen aldian Lekeitio erri txikia zan, albiste, barririk ezerezena beingoan jakiten da ta, gizon ospetsu jakitun au errian zala arin zabaldu

zan, edatu zan. Batzuk, erritar batzuk, egunkarietan irakurrita jakien jakituna zala, beste batzuk entzutez.

Txangolaria egun gitxi barru lekeiotar bat geiago zan, osoz erriraturik, Igandeera be beste erritar geienak bezela Mezea entzuten joaten zan.

Jai baten eleispean lekeiatar gizon-andra aldra nabarmena mezea entzuteko asmuz joanda aurkitzen zan, eta gure gizon jakituna bere andreaz agertu zanean erritarren alkar-izketa gaia gizon onetzaz zan.

Batek nondikoa zan esaten eban, beste batek bere adiña, ze ikertu eban aragokoak, eta danak oso jakituna zala ta bere ospe osoa zio onegaitik ebal.

Jakituna zala entzutean andra-gizonezko aldrakide baserritar batek bere erritarrei esan eutsen.

Gizon ori ez da ain jakituna, ez asko gitxiago be. Erri onetan danok dakigu Errekaxo basetxea non dagon, ta orrek ez ekian. Leengo egun baten neuri itaundu eustan baserri ori non egoan, eta neuk erakutsi bear izan neutsan.

UTS IKARAGARRIA

Gaur arrastian kale ertz batetik niñoala Agurtzane nere lengusiñagaz topo egin neban, eta oso keskatsu, urduei etorralla nabaritu.

Gaur, uts ikaragarri bat izan dot. Erosketak egiten nebiltzala, antziñatik ikusten ez neban adiskide, lekai-me-etxean ikaslekide izeneko bateaz aurkiturik, oso alai ta maitasun zintzoenegaz agurtu ondoren bere sendiagaitik galdetu dautsat. Ba nekian ezkondu zala, baiña aurrerako astean alargundu zala ez nekian eta bere osasunagaitik be itaundu dautsot.

Joan da, beste barik erantzun eustan. Nik erritik kanpora, atserrira, lantegiko arazo anbat zuzentzen joango zala ta jarraitu esanez.

Une onetan, nire adiskideari bere izketa eten neutsan, iñotsola.

Onetik gaizkatu da, ez zeuntsen esango.

Ez, ez, ori biño askoz txarragoa esan dautsot. Zergaitik beragaz ez zara joan?

Olan ez da Agurtzane. Nire gizona joan dan astean il zan.

Une aretan zatorre biurtzea gure neban, Agurtzaneke iñostan, lurpean estaltzeko.

ANDREA GALDU

Ara Maurizio oski-konpotzegileri orain da iru aste zer jazo jakon.

Antza danetik andra-gizon onein arremanak ez ziran osoz txalotzekoak, ba da sarriegitan eztabaida ta oiuka izaten ziran.

Egun baten andrea Errosa bere etxetik aldendu zan, iges egin eban, ez daki-gu nora ez ziohaitik.

Maurizio ikusirik bere andrea ez zala agertzen, arik egun batzutara bere andrearen ezarertzea zalatzen komisariara joan zan.

Ertzaiñak asi jakozan Maurizioori itaunketatan eta esan eutsoen.

Zure andrea noiztik ez da bere etxean?

Atzo iru aste ain zuzen be aldendu zala, Mauriziook erantzun.

Iru aste eta gaur arte zalantza emoten ez zara etorri?, ertzaiñak iñotson.

Ara jauna, Mauriziook erantzun, ez nintzan ausartzen. Beste alde batetik, beti ain zoritxarrekoa izan naz bizitza onetan, eta agertuko zala uste neban.

EMAKUME ERRUKIGARRIA

Ludi, mundu, onetan benetan jazokera arrigarriak gertatzen dira. Ara, nire ezagun bateri zer jazo jakon.

Mutila lan barik geratu, egun batetik bestera, lan barik geratu zan. Egoera benetan larria langabedunena.

Nire ugazabak, lan barik, kalean itxi, ezarri nau. Diru barik naz eta lana ber-bearrezkoa dot, eta laster.

Nik lagundu gurean eta zerbait esateagaitik iñotsan.

Azkenengo egon ziñan lekuan zelako lana izan zenduan, ba?

Ara ba, esan eustan, motsen bezela egon nintzan. Lurrak landu, abereak jagon, zaindu, jaten emon, beiak eratsi, egurra ekarri, ortu ta soloak zaindu, basetxe bateko lanak.

Eta zure nagusiak, zergaitik kalean ezarri zaitu ba?, esan neutsan.

Nagusia neskatil gazte bateaz ezkondu zan, oso saminduta esan eustan, eta ez ninduala bear esan eustan.

Ezkonbarri a emakume errukigarria.

TXOMIÑEN TXAPELA

Txomin Soltureko kale ertz baten buru-utsik, aize-bolara batek txapela eroan dauka ta bere buruko lau uletxuak aizeak astindurik, kezkatu da.

Bere bestaldeko Ander bide beratatik doa ta bere laguna olan ikusirik diñotso.

Zer egiten dozu or, Txomin?

Aize-bolara batek txapela eroan daust, Txomiñek erantzun eutsan, eta beste aize-bolara batek txapel jabe bako bat noiz ekarriko dauan, ementxe zain nago.

KORBATEA

Endika jauna, jan-edariak saltzen dauazan denda baten nagusi, jabea da.

Jai-aurreko egun baten Endika bere lana amaitu ondoren iluntzean bere etxerantz joan zan.

Oitura eban lez, atarira eldurik, bere etxeko atarira eldu zanean, deitu eban atean ta neskameak atea idegi eutsan.

Iluntzea zan eta neskamearen asteroko egun-azke izaten ebana. Sasoi aretan iluntzean, neskame etxean egoala ikusirik, esan eutsan.

Baiña Kexuxa, ondiño etxean zagoz? Etxetik ain bat lasterren urte eizu, zure senargaia beko kale ertzean itxaroten dozu?

Baiña jauna, diñotso Kexuxak, ezagutzen dau nire Kaxinto?

Ezagutu ezagutu, ez, baiña neure korbatea daroa ta.

NAPOLEON TA BERE ANDREA

Gizon bat, bere gizona, Napoleon antzera dantzita Osagile bategana eroan, sikiatra bategana.

Andreari Osagileak galdetu eutsan, zer jazoten jako gizon oneri?

Niri!, niri!, niri ezer be ez, gizonak esan eban. Ni guztiz ondo nago. Ludiko gizonik ospetsuena naz, gudaritz aundi bat neure menpean dot, bear dodan diru guztia daukat beti, ta ospakisuñ aundiagaz bizi naz.

Orduan, zergaitik etorri zarie nigana? Osagileak iñotsen.

Nire andreagaitik, diñotso gizonak, beti dabil ekin eta ekin, Gartzia jaun-
ren andrea dala esaten.

SAN BERNARDO TXAKURRA

Urteroko oporrak emoten gaur egun geienak erbestera joaten dira. Batzuk euren oporrakaz gozatzeko uda-aldia naiago izaten dabe, beste batzuk ostera elur-kirol zalean izanik Negua euren oportetarako atsegiñago izaten jake.

Julene ta Miren antziñatik adiskideak, jantzi ta oial denda baten lankideak dira, ta gai onen guruz oporratzaz alkar-izketan ebiltzan. Juelenek bere adiski-
deari iñotsan.

Ni aurten oportretan itxasaldera joteko asmua dot. Itxasaldean ondartzara egunero joan zeinteke, ta uretan uger, iger, ondo egiten ez dodan lez, itoteko zorian, larri aurkitzen ba zara ta laguntza eskaturik, mutil gazte bat itxuara jase-
koa zu gaizkatzen etortea, ez da arritzekoa, ostera edurtzetara kirol egiteko ba zoaz eta istripu baten ondorioz larri, ilteko zorian ba zara, nor datortsu zu gaiz-
katzen? San Bernardo txakur bat.

BEGIAK LURRETIK URBIL

Mutil gazte batek gudarostetik urten ondoren, ogi-bide lez ertzaintzan sar-
tzea erabagi eban. Asmu orregaz komisari deritxon idazgela batera joanda, ber-
tan egoan lankide bateri bere naia agertu eutsan, au da ertzaiña izan gura ebala
ta orreterako etorrela.

Idazkariak mutila goitik bera begirekada batzuk eginda, esan eutsan. Zure
gurari ez dot on-artzen.

Zergaitik, gazteak naigabetuta esan eutsan.

Zure begiakaitik, idazkariak iñotsan.

Baiña, diñotso mutila, zer daukie nire begiak, ba? Nik ondo ikusten ba dot.
Ni gudarostean be iskilluakaz lergak botatzen leenengos nintzan.

Ez da orregaitik, zure begiak ikusten dodaz eta bikaiñak dirala esango
neuke, baiña lurretik urbilegi dagoz.

SANTIAGO FLORES

Ni gazte, ume kozkor bat nintzala nire errian gizon aberats, zaldun aberats, indianotarra, ezkongai, mutil zaarra, bizi zan. Ameriketean diru ugari eskuratu eban ezkerro morroiak be ugariago ebazan.

Baiña bere oparotasun, bere ondasun guztiak, gaitzak edozein atetan deitzen dauan lez, ez ziran izan eragozpen gaixoa bere egoitzan sartu al izateko, eta egia esan, gaitzak etxe dotore, oparotsu aretatik urtetako, beratan sartzeko ain bizkor ez zan arduratu. Mutil zaarra luzaro ogeratuta egon zan.

Goizero, egun batxu bat be utsik izan barik, iñok etxe aretan, mutil zaarraen egoitzan ezagutzen, nor zan ez ekien gizon bat, gaixoaren ozasunagaitik arduraturik itaunka agertzen zan.

Indianotarrak, gaixoak, beragaitik ain arduetsu agertzen zan gizona berotasun aundienagaz eskertuz, nor zan jakin al izateko, bere agiri-txartel bat eskatu egieia, bere morroiei agindu autsen.

Zaldun aberats orren otsaiñak olan egin eben, eta gizon ezezagunaren agiritxartela artu ebenean arriturik geratu ziran. Txartelak olan iñoan.

SANTIAGO FLORES- Ilak lurperatze arduraduna, zulogilea.

Santiago Flores jaunaren jokaera irain bezela ikusirik, morroiak ordea emotea erabagi eben. Otseiñak batzarturik Floreseri arrera oroigarri bat egin bear jakola, erabagi eben.

Nagusiaren baimenaz, zaldun aberatsaren baimenaz, mai aundi baten ganean, argizai bin erdian, morroitarriko bat etzunda jarri eben, gorpu bat iruditurik, zulogilea aurkeztuko zan ordurako morroia luze luze mai ganean egoan.

Oitura eban bezela, Floresek etxeko atean ots egin, deitu eban. Morroitarriko batek atea idegita aurpegi goibebez, adigarriaz, nagusia il zala ta zerraldoaren neurriak artzeko, mesedez barnerratu eitela, esan eutsan.

Flores jauna, bera be aurpegi ilunagaz morroi etzunda egoan gelara sartuta, "ilaren" neurriak artzen saiatu zan. Bereala etxunda egoan morroia, "ila", zutundurik zulogilea besotik oratuta, esan eutsan.

Ara Flores jauna, ni lurpetu gura nozu, ez? Oraindik goizitetxu da, bardin ba deritxazu, neuk ilobiratuko zaitut.

Flores jauna oso arrituta, lotzez aurpegia gorri gorri, indianotarren etxetik urten eban.

SENARGAIA ATXILOTU

Azkenengo orduan ibiltea grifia oso nai-ezekoa da, ara emen nire auzokide bateri zer jazo jakon.

Bere ezkon-egua zan, Miren emazte-gai maiteaz ezkontzeko amabiak oso urbil egozan, eta uri nagusiko kaletatik kotxean abiada larregian joian, eta ara non kale ertz batetik udalzain bat agerturik, gelditzeko agindu eutsan esanez.

Egun on jauna, abiada larregian, zilegita dagoan baiña abiada biziagoan joan zara, ta zigortu bear zaitut.

Ara udalzain jauna, nire auzokideak eten eutsan bere izketa, udalzaiñaren izketa, zilegi eistazu nire arazoa azaltzen.

Ixilik, joan zaran abiada uri onetan debekaturik da, tamala dot, baiña atxilotu bear zaitut. Espetxean nire nagusia agertu arte egon bearko dozu.

Baiña jauna, mesedez entzun eistazu, esan bea dautsut...

Ixil ixilik egoteko diñotsut, zeure alderako izango da ta ixilik egon zaitez, udalzaiñak diñotso, bereala espetxerantz abiaturik. Gaztea eleiza ordez espetxea ikusi eban.

Ordu pare bat geroago udalzaiña espetxeratuana urreratuta, oraingoan irribarre alaiaz, esan eutsan.

Zorionsua zara. Gaur nagusia bere alaba zaarrenaren ezkontza dala ta, bere ezteguna joan da, ta bertatik itzultzen danean oso pozik egongo da ta ziur zu azkatzeko aginduko daust.

Ez zaitez egon ain ziur, oso abots mingarriaz gazteak esan eutsan. Neu naz zure nagusiaren senargaia.

TXARRI OSTU

Gure baserrietan txarrikia janari berezia betirik izan da. Urtero baserritar geienak txarri bat edo bi ilten dabez. Txarrikia gazun-azkan sartuta koipea ta beste janari batzuk urte osoan lapikokoa egiteko bearrezkoak dira. Txarria ilda age aundi baten, basetxeko age baten, legortzeko eskegita jarritzen dabe.

Baserritarrak, geienetan, txarria goizean ilten dabe, ondoren andrazkoak odol-este ta buzkentzak, gabean izango dan txarri-bodarako, egiteko, egin al izateko astia izan dagien. Umetxutan, txarri iltea, buzkentzak auzokieen artean banatzea pozgarria izaten zan. Zenbat oroi goragarri urteroko txarri-ilteetan!

Naizta Euskalerrian txarria goizean iltea oitura izan, Txomin Kukuzbekok, ez dakizu zer ziogaitik, arrastian, iluntzerantz, urte aretan bere kortako txarri ederra il eban. Txarri, il ondoren Txomiñek, baserritarren ekanduri jarraituz, etxearen ateurreko age aundi baten legortzeko eskegi eban, biramonean txarri zatitu ta gazun-askan sartzeko asmuz.

Gaba lo egin eta atsedean apur bat artzeko egiña dala estan dabe, baiña zoritxarrez salbuespen batzuk izaten dira, ta gaba aretan orretariko salbuespengile batek Txomiñen egoitzara ikustaldi bat egiten joatea erabagi eban. Txomin biramonean ogeti jagi ta leenengo zeregiña, il eban txarria ikustea izan zan. Baiña zoritxarra, txarria eskegita ezarri eben lekuan ez egoan. Iñorenzale anba-tek bere etxean be koipea bearrezkoa dala ta, lapurtu eban, txarria lapurtu eban.

Txomin, gure baserritarra, nasai, ixil ixilik geratu zan eta jazorikoa ez eutsan esan iñori.

Andik iru ilebete ingurura bere erritar batek agurtuta esan eutsan.

Zer Txomin, txarria nok lapurtu, ostu, eutsun susmatu dozu?

Gaur arte ez, baiña une onetan nor izan zan susmatu dot.

BIR-AMAMA

Peilizianak larogeta amar urte beteak dauz, eta ondiño neskatil baten itxura alai, irribarretsua dau. Bere lagunak sarritan itauntzen eutsen ia olan ain gazte agertzeko zer egiten eban.

Ara, nire adiskide maiteak, zaartzeko, zaartzaroan iraun al izateko aldi luzea bear da... ta nik astirik ez dot iñoiz izan.

EZANEKOA

Ander nire batzarkidea, arrasti erdian egun baten bere etxean agertu zan ta bere andra Edurnek aurpegi ain ilunagaz eta lanetik goizetik etxeratzeaz arituri-rik, itaundu eutsan.

Zer jazoten jatzu, Ander? Zelan zatoz ain goizeti etxera?

Lantegiko nagusiak isarraturik, inpernura bialdu nau, Anderrek iñotsan.

Eta zur zer egin dozu? andreak erantzun eutsan.

Nik, zer egingo neban ba, etxera etorri, gizonak abots mingarriaz iñotsan.

LOTSEA

Oso asarre, lotsaz beterik naz, Etxeondoko Petrak bere gizonari iñotsan. Nire amak akurea ordaintzen dauku, soiñekoak nire izeko Antonik erosten daukuz, eta eguneroko janari-edariak erosi al dagizuzan, nire aizteak dirua amoten dauku.

Bai, nire Petra maitea alan da, lotsatuta egoteko errozoi dozu, zio naikorik dozuz. Zure osaba biak, beraz biak dirutsuak, ezertan be ez daustue laguntzen.

EDANTEGI BAKETSUA

Urtetan oso sarturik ziran andra gizon, bikote bat, otzgarri bat ta atsedean apur bat artzeko asmuz edantegi batera sartuta, baztartxu baten egoan mai baten beste zaartxu batzuk alboan, jazarri ziran.

Edantegian amar bat andra gizon danak zaar-saridunak, zerbait artzen eben bitartean alkar-izketa ixillean ziarduen. Baiña ara non, alako baten astrapaladan mutil gazte talde bat sarturik, ango bake ta ixiltasuna eten eban. Barre, santzoka didarrez, gure zaartxuak nekarazitzen ebezan.

Ustekabez, areitariko zaar bat jagirik, gazteekana urbildurik, gaztetariko bat sorbaldan ukututa, esan eutsan.

Ara gazte, an kanpoan, abots bigun, maitekiroz, esan eutsan, deitzen daustue.

Bai...? Nork...? gazteak erantzun eutsan.

Emen edantegi onetan gagozan guztiok, eta zaartxua astiro astiro bere bateroko lekura itzuli zan.

MARRASKILLO TA TORTUKIA

Uri txiki bateko kaletariko bat zearkatzen zala, tortuka batek marraskilo bat erasoten dau, ta topaketa orren ondorioz apur bat zorobiotuta geratu zan. Bere senera tortukia biurtu zanean, marraskiloari zer jazo zan itauntzen.

NIAGARAKO TURRUSTA

Niagarako turrustak oso ospetsuak dira. Eurak ikustea atsegintsua da benetan. Txangolari ugarik urtero ikuskizun zoragarri onegaz gozatzen, batez be gazte ezkon-barriak turrusta onen inguruetan ikusi al izaten dira.

Inguru aretan arroztetxe, ostaetxeak ugari dira ta ugaritasun orren ondorioz ostatxe garazleen artean egokitasun gogorra izaten dabe. Jakifia, ostaetxe garazleak euren bezeroa beti aundiagotu nai dabe.

Ostaetxeko naguzi batek, bere bezeroak geiagotu naian, ara zelako leloa ezarri eban. “Datorren urtean ostaetxe onetara bigarren ezti-aldia gozatzen aurtengo emazte ber-beragaz datorrenari, euneko ogei egon-saria berakatuko dau-tsat”. Nire eretxiz gizon a ez zan burubakoa, ez.

GAURKO TXARTELA BIARKO

Doixtar bat bere opor-aldia gozatzen Mexikoko lurraldetara joan zan. Egun baten uri aundi batetik beste batera joatea erabigirik, bearrezkoa zan txartela artu ta bultzi, trenean, sartu zan.

Trean sartu zanetik bitarte labur bat igaro ondoren bertako ardura duna, zulatzailea agertu jakon txartela zulotzeko. Doixtarrak erakutsi eutsan txartela ta zulogilentzat tren aretan joateko ez zala egokia Mexikotarrak esan eutsan. Jakifia mexikotarrak gaztelarrez itz egiten eutsan eta doixtarrak ez eutsan ulertzen. Izkuntza ezbarदिनेkoak ziran eta ezin ziran lez ulertu tren beratan joian doixtarrez ulertzen eban mexikotar bateri deitu eutsoen.

Zulotzaile ta adierazlea biak mexikotarrak ziran lez, eztabaidan saratatsu saiatzen ziran. Asieran euren arteko alkar-izketa naiko baretsua, baiña azkenean oso sutsu zan ezker, doixtarrak adierazleari, zergaitik ain asarre eztabaidatzen eben itaundu eutsan.

Ara jauna, mexikotarrak esan eutsan.

zulogitzaileak, txartel au gaurkoa dala diño, ta bultzi, tren au, atzokoa dan ezker, beratan ezin zeintekela joan diño, biarko trenari itxaron bearko dautsozula.

ATXURRA TA PALEA

Urteak dira, nire albo-erriko baserri baten gizon txantxelari, buru argikoa bera bizi zan. Txantxeta zalea ta baita be edantegi zalea zan ezker errian bere adiskideak danak ziran. Joseba eritxon baiña Errotabarri ezizenez deitsen eutsoen.

Joseba, Errotabarri, argiña zan lez, egun baten erriko etxe batera, auzoko basetxe batera orma bat egiteko deitua izan zan.

Basetxe beratako nagusia, etxaguna, gizon naiko zaarra ogean gaixorik zan, eta sendia Osagileagana gaixoa ikusi, egian, Osagilean arakatu egian, joan ziran. Osagilea, On Prudenziio au zan bere izena, basetxean aurkeztu ta gaixoa ikusi eban. Bere zeregiña bete ebanean On Prudenziio, Errotabarri argiñagaz alkar-izketan unetxu baten geraturik, egun alai ta txantxetan ekin naian, argiñari esan eutsan.

Lanean ez, Errotabarri, zuok, argiñok ondo be ondo bizi zarie, arduragabe-turik, beintzat geienetan. zuen, argiñeen lanean izaten dozuezan utsak, kare-ore ta kare-baltzak, estalduko dabez.

Errotabarri gizon ikasi, ikastetxe nagusietan ikasikoa ez zan, baiña bai adimenduna, eta erantzuna min ganean eban eta bereala Osagilea ixildu eban esanez.

Osagileen utsak oster, paleak, lurra euren ganera, katxatxuen ganera, kutxa ganera ezarriaz, estaltzen dabez.

ANDREA EZAGUTU EZ

Nire adiskide Koldo bere laneko zeregin bat bete bearrean erbestera bearra, egun batzutarako erbestetu bearra izan eban.

Lantegiko bere lantegiko beste lankide bateaz joan zan. Iru egun euren lanean Koldo eta bere lagunak erbestean. Eguedian osaetxetik bazkaldu ondoren kalerantz urteten ebela, osaetxeko atezaiñak eurekana urreraturik, eskutitz bat emon eutsen. Koldo nire adiskidearen izenean etorren eta bereala artzaileak estalkia idegi eban eta barneratuta zan orria atera. Orria idatzi-gabe egoan idazki barik eta baita be izenpetu gabe.

Nire andrearena da, bere lagunari esan eutsan, etxetik, nire etxetik urten nebanean apur bat asarre geratu zan, nigaz asarraturik geratu zan, eta txartel onek asarre jarraitzen dauala esan nai dau.

Zuk ez dozu nire andrea ezagutzen, ez?

AUKEREA

Sortalde ta sartaldeko emakumeen batzar baten, andra talde aundi bat urbidurik, senarratzaz, senarraren buruz, alkar-izketan jarduntzen saiatu ziran.

Batzarkidea zan Txinatar emakume batek kiñu bat egiñik, gai onen buruz bere eritxia adierazo nai ebala agertu-eban.

Ni oso pozik naz nire senarra nire aita amagaitik aukeratua izateaz, bai arazo, onetzaz guztiz pozik naz.

Baiña zergaitik?, Europatar emakume batek itaundu eutsan.

Ara, oso erreza da, Txinatar iñotsen, izu-arazituko nintzake nire senarra neuk aukeratua dala gogoratzean.

PRAKA ZAARRAK

Naizta Txakurzuloko Txomin mutil gazte, adoretsua ta langilea izan. Giza-joa, gazte errukigarria, oso aspertuta egoan egunkarian iragarki bat irakurri ebanean. Olan iñoan.

“Lorabaratx baterako gizon bat bear dot, aurkezturakan aurrerako lanean erabili ebazan soñekoak, ikusi dagidazan, ekarri bearko dauz”.

Baiña Txomiñek berak jazorikoa edestu dagiguzala, oba izango da.

Joan nintzan bai, iragarkian agertzen eban lorabaretzara, ta bertako jabe, nagusiagana aurkeztu nintzan, atsotxu naiko zaar bat zan eta nire soñekoak ondo be ondo ikastuta ondoren, esan eutsan.

Lantokia zeurea dozu, datorren ilearen lenen egunean lanean asi zeintekoz.

Biotz-biotzez eskertu neban, atsotxua eskertu neban, baiña oso kezkatu nintzan, arteroko lantegian erabiliko soñekoak, batez be prakak, ain premiñazkoa izateaz, eta olan adierazi neutsan, atsotxuari adierazo neutsan. Ara emen atsotxuaren erantzuna.

Ara gazte, esan eutsan, zure prakak belaunetan adabuz beterik dagoz. Zu baiña leenago beste gizon bi aurkeztu jataz, lantoki ori lortu naian aurkeztu jataz, baiña baztertu dodaz. Euren prakak upurdi adagiz beterik egon diralako. Ulertzen dozu, ez?

EURAK EZ DAKIE

Nire bestaldeko atsotxuak larogei urte dauz. Atso agure geienak bezela berak ondiño oso gazte egoala iñoan. Atsotxu au, Inazi deritxana, amama da, ta beragaz bizi dan iloba bategaz alkar-izketa asarrean, saratatsuan, tximist-argia, etxeko tximist-argia larregi ordaintzen ebalako azarre-erazita egoan.

Baiña, amama, bere ilobeak esaten eutsan. Berogailua egun osoan biztuta daukazu eta ganera sarritan ogera joaten zaranean argia amatatzea aitzu egiten jatzu.

Bai, guzti ori egia da, umetxu, baiña eurak tximista-arduradunak ezin leikee jakin, iñotsan.

Ba da nik beira-oialak ertsita jartzen dodaz, ixita jartzen dodaz.

GUTUNA

Ara emen neskatik batek beragaz matamendurik zan mutil gazteari bialdu eutsan gutuna.

Gure artu-emonak, arremanak, apurtu, eten ziran unetatik zein zoritxarrekoa nazan azaltzeko ez dot itzik. Barriro ningana etorriko zarala, mezedez esaiesta-

zu. Nire biotzean zure utsune beste izaki, mutil batek ezingo dau betetu. Zu barik ez dot bizitzarik, zu barik ez dot gura bizi. Errukitu zaitetz nigaz, parkatu eistazu. Itxaroten zaitut.

Iñoiz baiño geiago maite zaitut. Beti zurea.

Miren

Oha. zori-onak azkenengo zozketan ekuratu zenduan dirutsagaitik.

SOIÑULARIA

Nire bestaldeko Mikeltxu zaamiola ikasten dabil eta egia esan bere ikasketatan aurrerakuntza larregi, naizta berak alegin guztiak egin, ez dau lortzen.

Sarata larregi bai entzuten zan euren etxean eta ez soiñu-gozotasunik, orre-xegaitik, sarateagaitik, bere aita-amak lorategira, baratz-larategira, mutilaren soiñu-saioa egiten bialtzen eben.

Mutil-soiñulariak olan jardun eban luzaro, ta auzokideak asieran naiko adikor izan ziran, baiña azkenean azperturek, mutilaren soiñu-saratakaz azperturek, oso kezkatu ziran.

Egun baten auzoko mutil gazte bat, Mikeltxun adiñekoa bera, soiñularigana urreraturik esan eutsan.

Mikeltxu, zer izango zara mutil aundia egiten itxiten, zilegiten, ba dauztugu?

URDURI EZ?

Josantonek bere etxetik urrunki zan uri aundi baten arazo batzuk zuzendu bear ebazan, eta egazkiñez joatea erabagi eban.

Josanton egazkiñen sarturik, azafatak agindu eutsan jearlekuan apaz eta nasai jearri zan.

Naizta Josantonek nasaitasuna agertu agura, egazkiña abiadan azi zanean apur bat baiño geiago kezkatu joian.

Olako baten bere alboan jearrita joan atsotxu batek itaundu eutsan.

Zer, urduri ez?

Bai, gizonak, Josantonek erantzuz eutsan.
Leenengoz ez?, atsotxuak jarraitu eban.
Ez, andrea, diñotso gizonak, urduri sarritan izan naz.

MIGELTXU TXANTXAZALEA

Jarraian irakurri al dozuna irakurle, ez uste izan naizta ipuin, tortiko antza izan irakurgai bat barre-eragile utsa dala, ez. Migeltxu nire erritar bat izan zan. Iñoiz lanik egin bakoa, nire aitak umetxua nintzala bein baiño geiagotan edes-tutako Migeltxun gertakisun batzuk dira.

Migeltxu Makalane basetxea bere arreba neska-zaar bateaz bizi zan. Makalane basetxe lur palda urrikoa, arrebeak beste baserrietan alogoraturik eskuratzzen ebazan txanpon urriagoakaz eta etxe aurreko ortuan lortzen ebezan barazkiakaz, neba-arrebak euren urdaillak etsipetuten ebezan.

Migeltxu gizon oso begikoa izan ei zan, txantxa-zalea, erriko edantegi bakarra bere egoitz berezi zan. Adiskide ugari, erritar guztiak bere lagunak ziran baiña Migeltxuk bere iru erritar beragaz astirik geien emoten ebenak ziran, au da erriko abade jauna, idazkari jauna eta geltokiko nagusia, geltokiko “jefea”. Susmau dozu zergaitik, ez?, bai irakurle, irukote onek egunero ordu larregi ebezan ezer egin barik emoteko, eta zelan denporea obeto igaro tabernan mai baten kuartilotxu bat ardao edaten dan bitartean musean egiñez baiño? Migeltxuk emen izaten eben aukera ezin-obeia musean egin, muselari ona ei zan, ardao apur bat edan, guzti au ezer ordaindu gabe, nondik ordainduko eban ba, diru-eskuratzerik ez ba eban izaten?

Migeltxu naizta siñismen gizona izan, baiña siñismen otsekoa, eleizan sarritan ez zan ikusten. Ori bai, erriko umetxu anbatan bateo, erriko neska-mutil bikote anbatan eskontza edo iletatan, olako eleizkisunetan utsik ez eban izaten.

Onela Migeltxuk bere bizia emon eban. Baiña bizia, ez dakit zori-on edo zori-txarrez, laburra da. Urteak alerreska arin joaten dira, gaixo ta azbearrak agerturik, gizaki, gizasemearen azkena eltzen da.

Gure lagunari ber-bera jazo jakon, ludi, lurbira au itxiteko ordua eldu jakon, ogeratuta luzaro egon ondoren il zorian aurkitzen zan. Erriko abadeak gaixoari ikustaldiak sarritan egiten eutsozan, eta Migeltxun azken egunetan sarriago, egunero bere albotik ez zan aldetzen. Abade jauna, On Jose an ebillen, Migeltxuri bere azken ordua urbil zala zelan esan ez jakiñik.

Olako baten, gaixoaren iztarrak ukaturik, Migeltxuri esan eutsan. Ara Migel, zure iztarrak asi dira otsituten eta...

Naizta Migeltxu une larrian aurkitu, bere burua argi zan eta bere txantxa-zaletasuna beragan jarraitzen eban, eta abadeari geldiro geldiro erantsun eutsan.

Ara On Jose, biotz-biotzez zure onu, aolku mezedegarriak eskertzen dodaz, baiña ez bedi berori jauna nire iztarran ardurarik izan. Esanak egiak badira, nire iztarrak toki onera, egokira joango dira berotzeko.

Kepa Deunaren aurrean aurkeztu zanean, uste dot arrera ona izango eballa, eta baita be Goiko Jaunak Migeltxun azken txantxa au entzutean, maitasunezko irribarretxu bat egingo eballa.

Gizon ona ei zan, iñori iñoi z txarrik egin bakoa. Alpertzua bai, baiña beste aje, griña txar bakoa.

ZENARGAIA ATXILOTU

Jarraian irakurri al dozuna Mexikon jazo zan. Mexikatar mutil gazte bat bere kotxe dotorean uriko kale nagusitik abiada larregian joian, beintzat bertako udal-zaiñari olan eritxon. Onek, udal-zaiñak kotxe dotoredun mutila gelditu-azorik esan eutsan.

Tamala jat, gazte, baiña abiada larregian joiazan ezkeru zigortu bear zaitut. Sentitzen dot.

Ara udal-zaiña zilegi eistazu jazorikoa azaltzen, ni...

Ixilik, bere izketa mutilari eten eutsan udal-zaiñak. Ixilik egon zaitez zigorra andiagotu ez daiten. Bereala udal-zain nagusia etorri arte espetxean sartu bear zaitut.

Baiña jauna, mutlak bere azalpena udal-zaiñari agertu naian saiatzen zan, mesedez entzun eistazu, nik esan nai dautsut...

Barrero udal-zaiñak bere esana bete eban, mutila espetxean zan. Arik ordu bete ingurura udal-zaiña mutilagana urreraturik esan eutsan.

Zoriontsqa zara gaur. Nagusia bere alaba zaarrenaren estegura joan da. Itzul-ten danean, ziur guztiz pozik izango da ta azke jarriko zaitu.

Ain ziur ez zaitez egon, apalki gazteak esan eban, ba da neu naz senargaia.

MIRAGILEA

Itxas-ontzi eder baten txangolariak poz-arazi naian saiatzen zan miragile bat, txori-berritsu bateaz bere lana egiten eban, baiña onek, txori-berritsuak bere ekitaldiak lazkitzen eutsazan esanez, “-Usoa bere txapelan dauka”, “untzia bere kapelan dauka” edo “txartela prakatako sakelean sartu dau”.

Egun baten itxas-ontzi dotorea itxas zabalean joi ala, ekaitz izugarri baten ondorioz, berraun kilometro abiadako aize izugarriago batek bultzatuz itxasontzia aitz erpin batzuten jota ondatu zan.

Miragile eta txoriak zure aundi baten ganera igotea lortu eben, eta an beste itxasontzi-ondatuakaz gaizkatzaile anbat noiz agertuko zain egozan. Lau egun luze txoria miragilearen aurrez aurrez, berari begira adi-adi iraun eban, baiña azkenean azperturik geiago jasan eziñik, miragileari esan eutsan. Ondo da, oraingoan zeu zara garaile, ezin dot geiago, baiña besedez esaistazu itxasontzia non sartu dozun?

EZKON-AUSLEA

Gau baten Lapidus eritxon gizon bat bere etxean, Zeldanda ta seme-alaba bigaz afaltzen egoala urdaileko min jasan eziñeko batzuk izan ebazan. Astulka, arnasea estutzen asi jakon eta bere birikiak nekez betetzen ebazan. Azkenean il-zorian zala bere azken ordua eldu jakola argi ikusten eban. Une larri aretan bere andreari begiratu eutsan, eta abots gozo ta maitekeroz, parkamena lortu naian, esan eutsan.

Zeldanda maitea, ilten naz, baiña il baiña leenago gauza bat, emen barruan daroadan artxu bat, autortu bear dautsut.

Ni zugaz ezkon-ausle bat izan naz, parkatu eistazu.

Bai Lapidus maitea, guzti ori ba nekien. Zuzen be orrexegaitik pozoitu zaituz.

ZALDI BEREZIA

Lubira onetan bizi da izaki bakan bakoitxik! Ara nire adiskide Pantaleonek daukan zaldia bakana ez ba da esango daustazue.

Nire adiskide Patan zaldia naizta Pinto deitu, margoz zuria da. Baiña au ez da bere bereitasuna, ez. Zaldi au, Pinto, abiadaazotzeko alperrikoa zan “Arre, mekauden... eta beste olako itz zikin, saratatsuak esatea, Ostera Jaungoikoa gure Jauna goraldua izan dedila entzutean, bereala abiatzen zan. Pinto eleiztar zintzoa zan, ez dakigu nondik etorkion griña ori, baiña alan zan. Bardin zamar gelditzean be Pintori jazoten jakon. Iso esaten bajakon, ez eban zirkiñik egiten bere bidean jarraitzen eban, baiña Amen entzuten ba eban arrizko gelditzen zan. Guztia au bakana ez?

Nire zalditxua zaartzen doa, indartsu, adoretsua izan da, baiña gaur egun oso makal ikusten dot, Pantaleonek bere baitan iñoan, biotz-biotzez sentitzen dot baiña urbil dan San Blas egunean Abadiñoako azokara eroan bear dot.

Pantaleonek bere asmakisuna bete eban. San Blas egunean goiztar bere zaldi zuri maitea trailan eroala, zaldia nekatu ez eiten bere ganean joatea be Pantaleonek ez eban gura ta, Abadiñoako azokan aurkeztu zan.

Zaldia naizta apur bat zaartuta izan, tankera, itxura onekoa zan. Ondiño tankera onekoa zan, eta erosleak urreratu jakozan. Azkenean Berriztar bateri bere zaldia Panaleonek saldu eutsan.

Pantaleon gizon zintzo, deduzkoa izanik, zaldiaren bereitasunak erosleari azaldu eutsozan, zelan abiada jartzeko Goraldua izan beti gure Jaun eta Jaungoia esatea bearrezkoa zala, ta zaldia geldiazoteko Amen entzun bear ebala.

Erosleak Pantaleonen azalpenak, arreta aundiz ez, baiña entzun ebazan, ordaindu eroskiaren dirua, ta arik asti laburrean bere etxerako bidean bere erosi-barria zan zaldi zurian abiatu zan. Asieran bidali asieran, zaldia abiada egokian joian baiña apurka apurka abiada biziagoa ta azkenean ariñegi joiala, zaldia ariñegi joiala, nabariturik eta troka baten bazterra urbil egoala konturatuta zaldia gelditu nai eban, soo! sooo! bein eta barrero garrats arsarren bizian oiuka iñotsan, baiña alperrikoa. Azkenean saltzailearen azalpenak, lelokeritzat artu ebazan azalpenak, gogoraturik, eta etsimenduta esan eban, “Amen”. Une berberatan zaldia gelditurik, izerdi otsez, arnasa gozo bateaz bere biriak bete ebazan, eta troka sakon aretara begira zala, Jaungoiko gure Jauna goraldu izan bedi beti. Onerik gaizkatu nozu Jauna.

EZKONGAIAK

Nire auzokide Arantzan alaba gazteena, neskatik aurpegi, matrail gorrizka, ule luze-kirruduna, nire adiskide Kepa dau senargaia. Alkarregaz maitemindurik dira, ta bikoteak ordu luzeak neskatilaren etxean emoten dabez.

Onetariko egun baten, gaba baten esatea zuzenagoa da, neska-mutil gazteak Kepa ta Julene, au da neskatilaren izena, etxeko gela baten, goiko sollaruko gela baten, bakar-bakarrik egozan.

Belutxua, berandutxu, zan, beintzat neskatilaren aitak, Asentziok, olan eritxon, ba da gizona beko sutean geldi egon eziñik, batera ta bestera ebillen.

Arantza, iñotson Asentziok bere andreari, gure bikotearen gaurko ikustaldia luzeegia deritxat. Bereala oraintxe gela orretara igongo dot eta tximistea baiño arinago Kepak bere etxerako bidea artu bearuko dau.

Nasaitu zitez gizona, bere andreak iñotsan, gazteak dira ta. Gomuta eizu zure gaztaroa, geu gazteak giñanekoa.

Arraio, arraioa! ain zuzen be orrexegaitik ba, ez naz gomutako, ez dot gogoratuko ba! Orrexegaitik mutil gazte orrek bere etxera ainbat leen joan bearuko dau.

EREMUA

Txangolari bat oso nekatuta, izerditan, egarritz ito bearrean, Saharako eremutik joian. Iñongo aldetik ezelako bizitzarik ez eban ikusten, eta bere kotxean zuzen-bide gabe jarraitzen eban.

Olako baten, gamelu ganean beduino bat beraganatz zelan urbiltzen zan ikusirik, eta beragaz topo eginda, bere kotxea gelditu eban, eta itaundu eutsan.

Jauna, mesedez esan al daustazu, Siwa oazizera zelan eldu naiteken?

Bai, zelan ez, adeitasun osoz beduinok erantzun eutsan.

Zoazen zuzen-bide ber-beratan jarraitu eizu. Asteartean eskumara bira eizu, ta aurrez aurrez daukazu. Eguastenean oazizera elduko zara.

EGIAREN ATSETIK

Jokin mutil gazte tankera, itxura onekoa, jaseko mutil gazte bat da. Beintzat berak olan dala uste dau. Neskatik gazteak berari begira, adi-adi geratzen dirala, uste dau.

Bere zeregiñetan uri nagusira joan zan egun baten, bere lana amaitu ondoren jatetxe batera jateko asmuz sartu zan. Jazarri maia baten ta bere aurrean naiko urbil lau neskatik oso polit eta erakargarriak euren urdail borlari gabeak betetzeko gertu ziran.

Jokinek begirakada batzuk neskatik gazte politaren maiarantz egin ebazan eta neskatilatxuak be irribarre, begirakada irribarretsu, alaiakaz erantzuten eutsoela ta, pozik aurkitzen zan.

Jatordu osoan talde bi oneik onelan jarraitu eben, ziarduen eta Jokin neskatil poli, eta erakargarri areik beratzat, Jokintzat alkar-izketa mamintsuan zirala ta neskatilak egiten ebezan irribarre alai, gozoak, berantzat zirala uste eban.

Jatordua amaituta, arrastiko lanari asiera emoteko ordua urbil zala ikusirik, Jokinek ordaindu eban janekoa, jazarlekutik jagi zan eta bere aulkia atseratu ebanean bere atsean jaten egoan batearenagaz jota, topaturik parkamena eskatu eutsan, esanez. Parkatu jauna, eta... emen izan zan bere amets alai, pozgarriaren azken mingarria. Jokinen atsean jaten egoan zalduna... Marlon Brando zan.

URRUTIZKIÑA TELEFONOA

Urrutizkiñ-kaiolatik sarritan deitzen dautsuet, onelan iñotsen kamioi aundi baten gidariak. Izan be, telefonoa makestu dagonean, makestuta izateak naspil ugari eragiten daust, eta zoritxarrez arazo au gaingizka izaten dot.

Orrexegaitik ain zuzen be bein baiño geiagotan erostakaz, kezkatu deitu dautsuet, baiña zoritxarrez egunetan nire deiei ez dautsozue jaramonik egiten.

Egunetan apurtuta, makesturik egoan telefono bat konponduta, berba itz egin ondoren dirua itzulitzen ebal, esanez deitu neutsuen, eskerrik asko.

Ordu bete baiño leenago, arik ordu berte baiño leenago telefonoko langileak arazo au zuzentzera eldu ziran.

AFRIKAN JAZORIKOA

Txangolari bat Afrika lurraldetatik safari egiten joan zanetariko baten, leoi aundi, eriotzaile bateaz aurrez aurrez bere burua ikusirik bildurrez jota, otoi bero-beroa egin eban esanez.

Jaungoiko Jauna, pizti eriotzaile, zital orregan kristautasun jokaera ezarrio bedi, arren!

Ostera leioak, bere miñeaz ezpanak mizkatzen ebazan bitartean, onela iñoan.

Bedeinkatu jauna nire gaurko janari au, arren.

SAFARIAN

Beste safari baten leenengoz olako tartekoa zan batek, eta bere burua jakintsutak uste ebanak, gidari, bideerakuslegana urreraturik, onelan iñotsan.

Parkatu jauna, ez da egia, leoiak izututzeko eskuan zuzi bat eroan bear dala?

Bai, ori egia da, zuzia eskuetan daroana leoia baiño azkarrago, ariñagoa ba da.

ORAIN BADAKI

Aitortxu sei urteko umetxua bere amagana negarrez doa, eta onela diñotso.

Amatxu, nire arreba Alatzek uletik teinkada bat egin daust, teinkada mingarria izan da, sotinka Aitortxuk diñotso.

Zure arrebeaz ez zaitez asarratu, maitetzu, zure arrebatxuak, Alatzek, txikia da ondiño ta ule teinkada mingarria dala ez daki.

Arik une labur batera, ostera be negarrak entzuten dira, ta bereala ama maitekiro negarrak diran tokirantz doa, ta oraingoan negartia bere alaba Alatz dala nabaritzen da.

Bere aurrez aurrez, Alatzen aurrez aurrez, bere neba Aitortxu dago ta ama ikustean diñotso amari.

Amatxu, orain Alatzek ule teinkadak mingarriak dirala ba daki.

AMANTALA

Nire auzuneko Mirenek orain dala egun batzuk, urira joan eta amantal bat erosi dau, baiña etxera eldutean osoz egokia eta ez dala nabaritu dau.

Biramonean barrero urira bidali bat egin bearra naz, bere gizonari esanda, etxetik aldendu zan.

Urira elduta artez artez, amantal erosi eban dendara abiaturik, beratan sartu ta dendalariari iñotsan.

Atzo emen erosi neban amantal au aldatu nai dot.

Baiña, zergaitik...? amantal ori oso ondo egokitzen ba jatsu, diñotso dendalariak.

Bai, niri bai, baiña nire gizonari estutxu datorkio.

ALBO-ALBOKA

Andoni mutil-zaar txantxelari ta arlote utsa, bere berebil garesti, dotoreaz afari oparotsu ta ondorengo jai-aldi alai ta saratasu batetik etorrela, goiz-aldean goizetik, etorrela, egun-sentia zala, ertzaiñak geldiazo eban. Kotxetik jaitsi zaitzez mesedez, ertzaiñak esan eutsan.

Jaitsi zan, bai, kotxetik Andoni. Itauntxu batzuk egin bear dautsudaz eta erdu neugaz, mesedez.

Andoni albo-alboka, aldean eroan mozkor izugarriaz ia zutik be egon eziñik, oinkada batzuk ertzaiñaren atsetik egin ebazan. Ertzaiña konturatu zan arazoaz eta kotxe-gidariari esan eutsan.

Zure alboka-alboka ibilte orregaz gero ez daustazu esango ardaoz beteta ez zatozala.

Ara ertzain jauna, ibaiak be alboka alboka egifñez menditik jaitsiten dira, eta urez beteerik eta ez ardaoz betेरik, joaten dira.

EMAKUME BAT BESOETAN

On Joxe nire erritarra naiko zaarkotxuta da. Urtearen eragiñez, eleiskisunak egiteko be ia ez gauza izanik, beste abade gazte bat, On Pruden, izandatu dabe eta egia esan, eleiztarrak aldatze au pozik artu.

Egia da, urteak gizaki moteldu, trakestu egiten dabela, baiña adimen, jakintze aberastu be.

Egun baten On Joxe aolku batzuk opatuz, abade barriari zer iñotsan.

Ara On Pruden, naizta ezlari inenatariko izan, homilia eleiztarrei azaldu naian naimen, gogorik onena, jarri, eleizatarrak lo-zorrotxua zelan egiten saiatzen dirala nabarmenez ikusi al izango dozu. Eleiztarrak burukadaka asten diranean, nik urten-bide oso egokia izaten neban. Onela iñotsen.

Anai-arreba maiteok! Bart beste gizon baten andrea neure besoetan euki neban. Orduan danak gutziz arrituta, burua zutundik, zutik, bizkortuta ziranean, jarraitzen neban. Neure ama maitea zan.

GALTZE TXIKIA

Nire kaleko oski-saltzailea, dendalari trebea bera, irakurle amorratua da. Bere eguneroko lan, bearrak, zilegiten dautsanean, zerbait irakurgaia bere eskuetan daroala irakurten ikusi al izango duzu. Lan bikaiña egiñez dirua be oparo eskuratzen dauan ezkeru, liburutegietako bezero naiezkoa da.

Baiña, ara leengo egun baten zer jazo jakon.

Uri nagusiko kaleetatik zear joiala, liburutegiko agertokian geraturik bertan agertzen ziran liburuak ikusita euratariko bat erostea erabagi eban. Sartu zan liburutegira ta neskatil polit batek, berak, nire dendalariak aukeratu eban liburutxua erakutsiz, esan eutsan.

Jauna, sei mila ta bosteun lauerreleko da liburu onen sal-neurria.

Ederto, oski-saltzaileak esan eban, baiña bereala, aldean diru naikorik ez ebaleroango konturatu zan, eta neskatila liburu saltzaileari esan eutsan.

Ara polit, baietz esan dautsut, baiña diru naikorik aldean liburu ori ordain-zeko eukiko ba dot ez naz ziur. Ikusi dagigun.

Atara eban diru-zorroa ta dirua zenbatuz, sei mila lauerreleko eukazala nabaritu zan, eta jarraitu eban.

Sentitzen dot, baiña gaur ezin dot liburu ori erosi. Sei mila lauerrelako uts, utsean dodaz, apur bat geiago ba daukat, biña aren barik, diru barik, ezin naiteke geratu ta. Beste egun baten etorriko naz.

Ez zaitez larritu, arazo ori zuzen-erreza da, neskatilatxuak iñotsan, emoidazuz sei milla lauerreleko orreik, eta gaiñeroko bosteun lauerrelekoak emendik igaroten zaran beste egun baten emongo daustazuz.

Eskertzen zaitut, eta zeuk nai dozun lez egingo dot. Uri onetara astero etorten naz eta zorra ordainduko dautsut, baiña irribarreka oski-saltzaileak jarraitu eban.

Baiña emendik urtekeran, txantxetan iñotsan, kotxe batek zapalduta ilten ba nau.

Ez larritu orregaitik, galtze txikia izango litzake.

SALBUESPENA

Naizta liburutxu au barre-erazle izateko asmuz idatzia izan, gaur goizean aldizkari baten irakurri dodan, gure euskeraren buruz irakurri dodan idazki oso sakon, mamintsuak, salbuespen bat egiten bultzaten nau. Olan diño.

Sueziako neskatil gazte bat, euskeraz egiten nebala ikusirik urreratu jatan eta gure izkuntz, euskera garbi-garbian bere biotz-miña agertu eustan, bere, nezkatilatxuaren kezka, erosta nabarmena euskera aurkitzen zan egoera larri, gogorragaitik zan. Neskatilatxuak Gotenburgoko ikastetxe nagusian gure izkuntza ikasi eban.

Neskatik onek gure nagikeria, euskotarren nagikeri ta alperkeria ezin eban ulertu. Agurtu baiño leenago ara zer garrantzitsu, auznartu bearreko, guk astiro auznartu bearreko ta premiñazko arazotzaz, esan eustana.

“Euskera galtzen bada, zuok euskaratarrok, zuen errien aurrean uts utsean errudunak ez zarie izango, ludiko gizaseme guztien aurrean baiño. Zuen izkuntz, euskera naizta gaur egun bere bizitza, euskeraren bizitza, zuen eskue-tan egon, euskotarren ondore ez-eze gizadi osoaren ondore dan ezkerero, euskera babestu, txukundu, edatzeko, arduradun bereziak zarie, beraz olan egin ezik, kontairak epaituko zaitue.

Ez ete da au zio naikorik euskotar guztiok, danok geure eguneroko arreman guztietan, etxean, kalean, lantegi ta ikastetxe, euskera erabiltzeko? Euskotarrok euskera dakigunok erabili ta ez dakienak ikasiaz, gure izkuntza berbiztu al izango dogu, euskera kaleratu bear dogu. Saiatu gaitzean ba zeregin onetan.

PANTXO VILLAREN SEMEA

Jarraian irakurriko dozuna Mexikon jazo zan. Pantxo Villa lurralde aretako leendakaria izan zan aldian.

Pantxo Villak seme bat eban, eta edozein aita-ama lez, berak be bere semea lantegi egoki baten ezarri gura eban.

Bere guraria betetu naian egun baten errialde aretako jaurlari bateri deitu eutsan, esanez.

Begira manito, nire semea or doatsu zure idazkaritzat jarri dagizun. Beragaz zer egin bear dozun ba dakizu, ondo artu ta alogera obea emon, ordaindu.

Arik egun batzuetara, patxori gobernadoreak deitu eutsan, iñotsola.

Leendakari jauna, zure semeak idazkaritzarako ez daust balio. Ez daki ez irakurten ez idazten be.

Ori, arazo ori, manito, errez zuzendu leiteke, Pantxok erantzun eutsan.

Idazkaritza lez zeu jarri zaitez eta nire semea Gobernadore jarri daitela.

Izan be, arazo gogorren, zailena be, gogo onez, bereala zuzendu leiteke.

AMABOST EGUN

Lekaime-etxean urte sasko barneratuta izan ziran neskatil bi, bata Balmasedakoa ta bestea Lekeitiokoa, antziñatik alkarregaz egon bakoak, ain zuzen be lekaime-etxetik azke izan ziran egunetik, Bilbon topatu ziran, kaletik zear joia-zala topatu ziran, ta alkar agurtu ta muzukatu ondoren, diñotso batek besteari.

Azpaldiko Margarita, zelan zabiltz? Ezkondu zinan? Margarita Balmasedakoa zala esan bear dot eta Miren Lekeitiokoa.

Bai Miren ezkondu nintzan.

Eta zelakoa da zure gizona?... baiña nasaiago alkar-izketa egin dagigun, goazen akeit etxe batera.

Alan egin eben. Neskatilak aurrez aurrez mai baten jezarri ziran, eta euren alkar-izketan jarraitu.

Bai Margarita, zelakoa da zure gizona, zure erritarra da?, Mirenek itaundu eutsan.

Nire gizonak diru-etxean egiten dau lan, ez da besterik ezezkoa, dirua asko asko ez dau irabasten, baiña alkar-maite gara, alabatxu bat dogu ta pozik bizi bara. Eta zu? ezkondu ziñan?, Margaritak esan eban.

Ni itxas-gizon bategaz ezkondu nintzan, pilotua da, petroleruetan egiten dau lan. Atzerritar-lantegia ta bera dabillen itxasontziak emengo kaiak ez dauz ikusten, diru asko eskuratu, dolarretan dau bere alogera, ta bialtzen daustazan dirutzagaz ederto bizi naz, bai urtero opor-aldietan, amabost egun elkarregaz egoten gara.

Urtean amabost egun alkarregaz soilki? Ezin zeinteke zoriontsu izan, Margaritak diñotso.

Bai, zelan ez, Margarita, pilotuaren andreak erantzun eutsan, amabost egun beingoan joaten ba dira!

AZKEN GURARIA

Nire auzoerriko Patxo Errotabarriko, naizta gizon gazte izan, gaixorik ogean oso txarto aurkitzen zan. Lurbira, mundu onetatik alde egiteko egunak zenbatuta eukazala ba ekian. Olako ager-aldi baten bere andreari deitu eutsan esanez.

Ara Marixa, andra-gizonak bikote gaztea zan, azken itz bat emon bear daustazu, ba nire azken ordua ur dago. Ni elten nazanean, zu ondiño gazte zara, ta, Karlosegaz ezkondu zaitzezala nai nuke, gura neuke.

Baiña Karlosegaz?, diñotso andreak. Bizitza osoan alkarregaz beti asarre izan ba zarie, ta zuen artean gorrotoa uts-utsean izan ba dozue, Marixak esan eutsan.

Bai Marixa, alantxe da, baiña zuk itza emoten ba daustazu, dana parkatuko dausat. Zeruko zoriona lortu dagidan, mezedez itz au emon eistazu.

ARDONAZKA

Gudari-etxera gaba baten guztiz mozkortuta gudari bat eldu zan. Biramonean bere nagusiak bere gelara gudariari deitu eutsan, eta aurrerako gaban jazorikotzaz, iñotsan.

Bart zergaitik gudari-etxera alako mozkorragaz etorri ziñan? Ez dakizu olako eginkisunak etxe onetan zigortu egiten dirala.

Parkatu jauna, ez dot geiagotan egingo. Bart lagun txarrakaz ibilli nintzan, eurakaz barriro ez naz joango, parkatu.

Zelako lagunak izan ziran orrek, ba? nagusiak barriro itaundu eutsan.

Lau lagun ziran jauna, danak ardonazkak. Orregegaitik sartzen giñan edan-tegi guztietan, neuk txola guztiak edan bear nebazan.

AMABI SEME-ALABA

Nire auzuneko andra-gizon bikote batek amabi seme-alaba dauz, baita arazo aundiak be neska-mutilak nondik dabiltzan jakin al izateko.

Alako gau-erdi baten, sendi osoa ogeratuta zanean, ara non, telefonoz deika aita izartu eben. Gizona ogetik jagirik, telefonoa egoan tokirantz joan eta bere eskuetan artu eban tramankulu ori. Jon semeagaitik itaunka zala ikusirik, berak be bere seme-alabei itaun bardiña egin eutsen.

Jon etxean dago?

Ixil aldi laburtxu baten ondoren, semetariko batek bere aitari doñotso.

Baiña aita, Jon ezkondu zanetik emen gugaz ez da bizi!

Izan be, amabi seme-alaba lartxu dira.

LAPURRA ALA ONGILEA

Gizon batek, diru-etxeko nagusia bera, margolari bateri bere irudia, argazkia laukian egiteko agindu eutsan.

Margolariak bere lana amaitu ebanean, diru-etxeko nagusiari deiturik, au lauki orren billa joan zan.

Baiña laukia garestiegia zala eretxirik, ala ez dakigu zergaitik, asarre bizian eztabaidatu ondoren, bertan bera laukia itxi eban.

Ori ez naz ni, lauki orretan iruditzen dana, ez naz ni, esan eutsan, orregaitik geratu zaitzez zeu beragaz.

Margolaria be asarraturik, zuzena dan lez bere lanaren dirua ez eban nai galdu. Orretarako, dirua eskuratzeko erabagi polita artu eban.

Erakusketa etxera bere laukia eroan eban, eta bertan salgai jarri izen-buru onegaz, "LAPURRA".

Aberatsaren belarrietara albiste au beingoan eldurik, oso muzinduta margolariari deitu eutsan, telefonoz deitu eutsan.

Alkarregaz eztabaida gogorra telefonoz izan eben, eta azkenean margolariak esan eutsan.

Baiña, zergaitik kezkatzen zara? Laukikoa laukian iruditzen dana, zu ez zarala ez zeustan esan?

Azkenean, diru-etxeko gizonak egíñez, ordaindu eban laukiaren neurria, beste urten biderik ez eban ikusten eta.

Laukia ordainduko dautsut, eskatu zeuztan dirua baiño geiago, baiña ezarri dautsazun izen-burua aldatu bearko dozu. ONGILE izen-buru berria jarri bear dautsazu.

Margolariaren guraria dirua eskuratzea zan, eta aldakunz ori egitea ez eban izan bat be astuna.

IKASTEETXEKO EGIN-BEARRAK

Nire iloba Iñakik idazt gela baten egiten dau lan. Ikasgelako nagusia da, ta sei urte inguruko semetxu bat dau. Mutila, Josebatxu, buru oso argiduna da, ikastolan be, bere aitak iñoanetik, bai, egia da, euren semetxuakaitik aita guztiak, danak, oso azkarrak dirala esaten dabe,- leenengotarikoa da.

Iñakik bere lantokian lana larregi izaten dau, ta sarriegitan iluntzean bere etxera, bertan egiteko, lana eroan bear izaten dau.

Egunero orri pillo bateaz bere aita Josebatxuk ikusirik, bein baten bere amari esan eutsan.

Ama, nire aita zergaitik dator egunero etxera orri moltso orregaz?

Ara Josebatxu, zure aitak lantegian zeregin larregi dau, berak lan-orduan egin al dauan baiño askoz geiago, ta orregaitik lana etxera ekartera bearturik izaten da.

Umetxuak beingoan zuzendu eban arazoa.

Ama, Josebatxuk bere amari esan eutsan. Ikastolan eginberrak ezin egin dabezan umetxuakaz egiten daben bezela, zelan nire aita atseratuen taldean ez dabe ezartzen?

ARTXOA ZAKELERAKO

Iñaki, Felipe ardao saltzailearen seme txikiena, mutiko azkarra da, baiña baita be oso biurri, sugelinda baten antzekoa, iñoiz geldirik egon ezia. Bere ama Andresa, andra maitekorra bere seme Iñaki esanekoa izan eiten, egunero alegintzen zan. Ogeratzeko ordua izaten zan sasoi egokia Andresak bere ikaskai azaldu al izateko.

Gaba baten ogeratzeko orduan Andresak semetxuari bere buruz asmauko ipuintxu bat edestu eutsan.

Ara Iñakitxu, zuk or goiko Peru Elortzaburuko artzaiña ezaguten dozu, ez da? Ba dakizu Peruk ardi ta artxo, arkume ugaria daukazala. Peru askoren artean Pili deitzen eutsan artxotxu polit, azkar eta bizkor bat eban. Pili polita ba zan, baiña ezgaitz, biurria. Naizta Peru artzaiña beti bere atsean ibilli, Pili esanekoa ez zan lez, okerreko bidetik joaten zan.

Amak, artxotxuaren mak, mendirantz ez joateko esaten eutsan, ba da bertan baso abarotsuan otsoak egozala, pizti eriotzaile zitalak eta arrapatzen ba eben, bereala il ta jan egingo ebela.

Arrasti baten artxotxua bere amaren onuak bazterturik, artaldetik iges agiñik abarotu zan eta otsoak artxoa galduta egoan abaro adartsu aretan Pili artxotsua arrapu, il eta jan eben.

Ama, ama... Iñakik bere amaren izketa eten eban, artxotxuarentzat mena izan ez izan bardin izango zan, ba da otsoak jan ez ba leu, geuk jango genduan.

Azkenean artxoa beti toki batera, zakelera.

UMETXUEN TXIXA

Ama maite askok, ama guztiak dira maiteak, euren umetxuak txixa egin dagien, ura iturritik dariola ezartzen dabe, aren otsagaz, ur-jarioaren otsagaz lagunduz, gizakiak bearrezkoa dauan au egiteko. Baiña ama errukigarriak, zuen umetxukaz oitura au ez eizue erabilli. Ara nire adiskide Emeteriori zer jazo jakon.

Goizaldea zan, Emeterio sarriegitan egiten eban bezela, arrasti osoa ta gabaren zati on bat edantegitik edantegira ibilli ondoren, txistu soñuan, oso alai bere etxerantz joian. Bide erdi inguruan, bere etxetik bide erdi inguruan dagon iturrira eldu zanean, urak dariola egiten dauan otsa entzunik, txixalarria nabaritu

eban eta bide baztarrean edanekoa iraulten asi zan. Zeregin onetan luzaro egon zan. Berari be, Emeteriori be luzarotxu, bere txixalarria luzarotxua zala eritxikion, eta bera baitan iñoan.

Arraio-arraioa! Josantonen ardao sagia utzitu bear izan jot. Au dok txis-erreak egin dodana. Baiña txixa-zaparradearen otsa noiz amaituko jarriatu eban. Ordu bete inguru diño egon zala, larregi deritxat, baiña dana dala luzaro bai izan zan. Alako baten Emeteriok iturri alboan egoan basetxeko oilarraren kukurakada entzunik, aldean eroan mozoloa arinduta, berak entzuten eban otsa txixa-zaparradearena ez zala konturatu zan, iturriko ur-jariona baiño.

Gizon ganorabakoa, bertan agortu ez zanean.

ARREBEA

On Patrizio nire bestaldeko jauna, ikasle trebeenetarikoa izana, gaur egun diru-etxeko nagusia da. Parisko ikastetxe nagusian ikasketak egin ebazan.

Paris uri eder eta polita da, On Patriziok iñoan, opor-aldiko egunak emoteko nora obeto, bertara joango naz. Gaztaroan egoneko tokiak ikustea be atsegin jat. Zalantza gabe, olan iñoan bere baitan On Patriziok, txango bat egiteko gaur egun Paris da tokirik egokiena.

Antziña, bere ikasle-aroan bizi izan zan kaletik igarotean, ostatari izan zan bere gelatxua ikusteko askurtxua sorturik, irugarren bizilekura igon eban. Atean deiturik gazte batek urten eutsan. Naiz eta ez alkar ezagutu arrera, alkar-arrera adeitasun osoz izan zan. Gazteak, irakurle zaarrak bere guraria asetu egian, bizi-lekuko bazter guztiak erakutsi eutsazan.

Emen dan-dana dago bardin. Ezer be ez da aldatu. Gela au leengo uzo-tokia da gelatxu au, On Patriziok begistatzen ebana ikusiaz iñotsan. Oge ta aulki berberak, leengo berogailu berbera, leengo txisontzi berbera... une onetan uste gabe alasaren atea idegi zan eta neskatil polit, liran bat bertatik urten eban.

Ne... neure... neure arrebea da, mutilak guztiz larri esan eban.

Bai,... arrebea..., bai, atxakiak be bardin-bardiñak dira, irribarretxu bat egiñiz, On Prudentziok erantzun eutsan.

GIZON OARKORRA

Ander nire erritarra gizon oso oarkorra da. Jarraian datorrena irakurle, irakurri ondoren nik guzurre ba diñot esango daustazu.

Goiz-erdi baten Ander nire erriko geltokitik igarotean, bertako, geltokiko nagusiari, “jeferi” esan eutsan.

Jauna, langilearen trena ze ordutan emendik igaroten da?

Tren ori goizeko zazpirak eta amarren igaroten da jefeak erantzun.

Eta “rapidoa” Anderrek itaundu.

Rapidoa ordu bete barru igaroko da.

Eta korreaoa, barrero Anderrek itaundu.

Korreoa bederatzik eta erdietan, jefeak erantzun.

Eta jarraio-trena?

Jarraio-trenak gabaz igaroten dira... baiña gizona zein edo norako trena artu gura dozu ba? garrats jefeak esan eutsan.

Ez, ez,... nik ez dot bear trenik, ni ez noa iñorantz, nik trenbidea zearkatu nai, gura, dot.

AZTERKETAK EDERTO

Ekaiña inguruan neska-mutil ikasleak oso arduratuta izaten dira, bai Ekaiña azterketa aldia izanik, ume ta aziagoak be urduri, larri izaten dira.

Baiña aita-amak be zio beragaitik arduetsu ta kezkatua azterketa-aldia izaten dabe. Nire auzokide Manuelari be olako zerbait jazoten jakon. Bere seme Mikeltxu Ekaiñeko goiz aretan bere ikasketaren azterketan egiteko asmuz etxetik urten eban, eta jakiña, goiz osoan Manuela guztiz urduri Migeltxu noiz agertuko egoan. Alkar ikusi orduko amak bere semeari itaundu eutsan.

Seme, azterketan zelan?

Azterketak ederto ama, semeak erantzun, ikusi baninduzun. Epai-maiako danak barriz irailean egin dagidazan gura dabe.

TXAKURKERIA

Bein baten Errusiatik txakur batek iges egin eban eta lurralde azke batera eldu zanean, bertako txakurrakaz lagun egiñik eurakaz alkar-izketa mamintsuan jarduten eban.

Pinto eritxon erri azkeko txakurrak onelan itaundu eutsan.

Zelan bizi zarie Errusian zure errian?

Polito, naiko ondo. Bertako politika bardintasun zaleaz, ondo bizi gara. An egunero jaten dogu, txiro-txirorik ez dago, langabetasuna be lurralde aretan auzokidea ez da, errusiatar txakurrak iñoan.

Orduan, zergaitik atsegin-toki aretatik iges egin dozu, ba?, txakur errialde azkatasundunak iñotsan. Zeure errian ain oparotsu bizi eta iges egin, bertatik iges egin, ez dot ulertzen.

Ara adiskide, norberari be nozean beinka zaunka, ausikada batzuk egitea atsegin izaten jako.

ANDRA-GIZONAK ELEIZAN

Errufiño ta Miren jai-egun eta Igande guztietan meza nagusira joaten dira.

Erriko jaiak ziran, Errufiño ta bere andrea, Miren, oso apaindurik eleizaranz joan ziran. Sartu ziran eleizara ta erdi-aldeko aulkietan jezarrri. Mezeak iraun eban sasoi zelan edo alan gure bikoteak emon eban. Bata alboko andra gazteak begistatzen ta bestea, gizona gabaz apur bat belu, berandu, ibilli zalako edo lo-zorrotxuan. Eleizkisuna amaitu ta eleizatik urten ebenean Mirenek bere gizonari iñotsen.

Errufiño, zure aurreko aulkian jezarrita egon dan andreak aldean eroan jantzi polit eta garesti ikusi dozu? Eta zure alboan jezarrita egon dan andra gazte, kirru arek eroan dauan jantzi urdin lotsa-gabea? Eta nire aurrean egoanaren ibai-muzkerrezko narruaz egiñeko zorrotxua?

Errufiño olako gauzari begira egoten dana ez da, eta bere andreari erantzun eutsan.

Ba ez, lo zorrotxuan geratu nazala, uste dot, bart ez dot bat be lo ondo egin eta.

Mirenek, bere gizonari begirakada gogor eta luze bat egin ondoren, jarraitu eban.

Eleizara ez dakit zetarako zatozen.

MARTIN LUTHER KING

Orain azalduko dautsuena ez da txantxetako, gertaera au ondo oldoztu, ausnartu bearrezkoa dala deritxat.

Martin Luther King gizon baltz ospetsuak bere erabagiak ekandu onetan artzen ebazan.

Bein baten "Conferencia del Lideratu del Sur" deritxon batzarretik, zeinñetan bera, Martin, sortzailea zan, bertako langile baten aiepena, batzarreko diru batzuk beraganatu ebazalako, artu eban.

Egun batzuk aurrerago langilea, lapurketa egin ebana, bere aurrean aurkezturik, guztiz goibel, oso damututa, egin eban zitalkeriagaitik oso damuturik, parkame eskatuz, lantegian jarraitu egian, eskatu eutsan.

Luther King jauna bere batzarreko laguntzaileakaz, kideakaz, baturik, ara zelan babestu eban lapurketa egin eban gizona.

Zer egin bear da pekatari bateaz? Berak makalduta dauazan indarrakaz bakarrik, laguntza gabe, giza-seme artera bialdu bear dogu? Obenduna gure artetik egotzi bear dogu? Ala zaindu bear dogu eta bere oker, utsak, zuzendu?

Ara emen, gizon zintzo ta argi baten egikera guztiz kristaua.

OILOAK ILUNTZEAN EUREN OTARA

Danok dakigu Afrika lurraldea oso atseratua dala. Langabetasun, goze, gaixo eta abar, euren afrikatarren auzokide egunerokoak dira.

Beste errialde aberatsagoetatik Afrika ingurura notintsa aundia txangoz, batez be oporraldietan, joaten da. Ara emen olako txangolari bateria zer jazo jakon.

Txangolaria nekazari erritxu batetik joiala, gizon batek erritar batek, bere semea zigor bateaz joten ebala; ikusi eban. Semea zergaitik olan astintzen eban jakin naian, atserritarrak itaundu eutsan.

Zergaitik jotzen dozu mutila?

Begira jauna, afrikatarrak erantzun eutsan, Ergel onek gure oilotegiko atea zabal-zabal idegi dau, ta oilo guztiak oilotegitik iges egin dabe.

Ekintza orretan, iñotsan txangolariak, nik ez dot ikusten, ez dot nabaritzen ziorik mutila olan astintzeko.

Iluntzean oilo guztiak, danak, euren etxera, otara, itzultzen dira., erbestetarrak jarraitu eban.

Orduan afrikatar bere besoak zeruetarantz jasorik, diñotso.

Orrexegaitik ba, ain zuzen be, orrexegaitik, oiloak ze dira nireak.

Afrikatarrari bere lapurketako diruak egaz egin eutsoen.

DIRUA EMON

Txanton eta Kalisto adiskide aundiak dira. Erriko kaleetatik zear sarritan, larregietan esango neuke nik, edantegirik edantegira alkarregaz ibiltzen dira. Olako gaba baten, Txantonek bere lagunari esan eutsan.

Txomin, Txomin, ederra egin dok. Ogei mila ogerleko Kalisto lotsagalduari emongo eutsazan ba? Diru orreik galdu dozak, eta ez dirua uts-utsean. Kalistok ire diruaz zer egin dauan ba dakik? Erbestera ire diru ta ire emaztegaiagaz igen egon jok.

Albiste zaarra dok ori, Txanton. Guzti ori ba jakit, aurretizik nekian. Dirua zetarako emon neutsala uste dok, ba?, beragaz, Kaxinta nire emaztegia izanagaz iges egin dagian.

GEROAGO TA GARESTIAGO

Bai, egia da, Pantxikek bere bestaldeko Edurneri iñotsan, oso kezkatu iñotsan. Onelan ba goaz ez dakit noraño elduko garan.

Au zan andrazko bikote onen alkar-izketa berezia eguneroko erosketak egi-ten ebiltzala.

Egunerik egunera jakiak euren sal-neurria aldaturik dabe, okelea ba da gora, arraiñea bardin, igali, barazkiak, dan dana doa gora, Edurne.

Bai, bai, alan da Pantxike; iñotsan Edurnek, goratzen onek olan jarraitzen ba dau, janariak erosteko gizon, senar bi gixtienez bearko doguz.

BEREJKUNTZA

Langabetasuna neska-mutil artean batez be negargarria da gazteen etorkizuna etentzen dauan arazo gogor onek, zori-txarrez, zuzen-biderik ez dau aurkitzen.

Ori jazoten jakon gertaera onen aintzindariari be. Mutil gaztea zan eta langabe izanik, lantegi askotan lantoki bat lortu naian aurkezten zan.

Egun baten zeregin onetan zala, lantegi bateko nagusiari bere guraria azaldu eutsan.

Lantegiko nagusiak mutila jasekoa ikusten eban eta mutilaren gaitasuna jakin gurean aztertzen asi jakon, eta azkenean esan eutsan.

Lan anbaten buruz ba dozu berezkuntzik?

Ara jauna, mutilak erantzun, al izanik naiago neuke zuzendaritza taldean izatea.

Zer? zer diñostazu mutil! Toki ori eskatzeko zoratuta zara ala? nagusiak esan eban.

Zergaitik? Lan orretarako zoratuta egotea, izatea, bearrezkoa da ala?, mutilak erantzun.

TELEBISTA GAILUA

Tximista-ardi garazleak leenengoz telebista gailua salgai kaleratu ebenean, sendi geienetan tramankulu au erosten alegintzen ziran.

Koxanton, auzokide guztiak telebista-tramankulua daukie, guk be bereala erosi bear dogu, bere andra Maiñesik iñotsan.

Baiña Koxanton dirua erazten ez da bat be zalea, eta beti atxaki anbat jartzen eban. Egia esan, bere eskuratuta daukazan diru apurrak, lan gogor eta luzaro ekiñez lortuak dira.

Baiña andrazko bat, batez be zeure andrea, zerbait lortu bear dauala alegintzen ba da, ekin eta ekin bere naia lortu arte ez da geratuko, ez dau amor emongo, ez.

Maiñexi, Konsantonen andrea, olakoa zan, eta bere gizonari esan eutsan.

Koxanton, diru-etxera joan zaitez eta telebista-gailua erosteko, erosi dagidan, dirua atare eizu. Erri osoan uste dot, telebista-gailua bako bakarrak geu garala.

Baiña Maiñexi maitea... dirua... telebista-galua Gabon jaietan erostea uste neban eta... atseratu...

Ez dago zergaitik atseratu bear izanik, orain erosten ba dogu, Gabonetan telebista-gailudunak izango gara, andreak eten eban Koxanton izketa.

Koxantonek beste urten biderik ez eban, eta diru-etxerantz abiatu zan. Arik ordu erdi ingurutan Koxanton etxean agerturik, bere belarri atsean, ostean, atz egiñez, baserritarren maltzurkeriz bere Maiñesi maiteari iñotsan.

Ara Maiñesi maitea, dirua ataratzea eziña izan jat. Bertako nagusiak, diru-etxeko nagusiak esan daust, guk diruak eroan genduzan ondoren, diru-etxera diruak eroan genduzan ondoren, beste erritar askok bertara dirua eroan dabe. Diru oneik gure diru ganean dagoz ezarrita, jarrita, ta ba dakizu, gure diruaren ganean dagozanak kendu arte gure diruak bertan egon bearko dabe.

Jarraian zer jazo zan edesaileak ez diñosku.

ERREGE OPARIAK

Umetxuak eta aziagotxuak be bai, a ze pozik urte barriaren leenengo egunean izaten diran. Erregeak dirala ta, jai-aurrean artuko, eskuratuko dabezan, opariakaz ames egiñez gozatuz, eta gera biramon eta urrongo egunetan opariakaz jolasten, aldi benetan zoragarri ta gomutagarria.

Errege egun aurrean zan, Azkorre basetxean Patxo ta bera andra Iñazi euren lau seme-alabakaz afaltzen gozan. Afaldu ondoren Patxok bere seme-alabei itaundu eutsen.

Zer, mutilak, neska-mutilak, erregeari gutuna bialdu dautsazue?

Bai aita, semetariko gazteenak Erramontxuk, erantzun eutsan.

Eta zer eskatu dautsozue ba?, Iñazik galdetu eban.

Sarriago etorri daitezela, ama. Urtean bein uts utsean, soilki, etortea, erregeak euren opariakaz etortea, gitxi be gitxi deritxat eta.

DIRU AURRERATZEA

Giza-semearentzat diru-aurreratzea oso garrantzitsua dala deritxat. Biar etsi seme-alabei diru aurreratzean oituratzea guztiz onuragarri.

Olan eritxon Manutxun amari, beintzat irakurriko dozun, jarraian irakurri al dozun irakurgai onek olan adierazoten dausku.

Egun baten bazkal orduan apur bat atseratuta, jateko ordutik atseratuta, Manutxu izerditan, arnasea be artu eziñik, berba, itz, be ostaz ostaz egiten ebala, eldurik. Jezarri zan maian beste sendikideakaz, eta apur bat nasaitu zanean bere aitari esan eutsan.

Aita, gaur berrogei laurleko aurratu dodaz. Autobusean etorri bearrean bere atsean ariñeketen etorri naz.

Ez dozue iñoiz ikasiko, nire ikasgaiak osoz ez dozuez betetzen. Urrengoan, ariñeketan, taxis baten atsean ariñeketan etorri zaitetz, eta onelan diru geiago aurreratuko dozu eta leenago etxera elduko zara.

BIZAR MOTZAILEA

Zoritxarrez gizon, gazte asko dira, guda zital anbat dala ta, beso bakarrak diranak. Onetariko bat, gizon gazte beso-bakar bat bizar-moztegi batera bizarra moztu egien sartu zan.

Aulkian jezarririk, bertako langile bat zeregin onetan, bizar mozten asi jakon. Itxura danetik langilea bere lanean guztiz trebea ez zan, ba da bizarrak ebagi baiño atara geiago egiten eutsazan.

Gure gizon beso-bakar gizajoa izerditan, oso larri, langilea bere lana noiz amaituko eban urduri zala bizar-motzailea nabariturik, esan eutsan.

Zu ezagutzen zaitut eta ez dakit non ez zargaitik? Zuri nik bizarra leenago moztu dautsut ez?

Ez ez, niri ez, beso-bakarrak erantzun, nik besoa gudan galdu neban.

ARAGI IZTE

Zoroaren buruz idazki barregarriak egiten tamal dot, baiña salbuespen bat gai onetzaz zilegiko daustazue.

Eguerdi guztietan zoroetxe baten bertako zoro batek teiletura igon eta andik “eup” egiñez esaten eban.

Amabiak dira oraintxe ta buzkentza lapikora jaurti daigun. Bereala gotik bera bere burua botatzen eban.

Zoroetxeko gaixo-zaiñak, zoroak egunero eguerdiko amabietan egiten ebana ba ekian, eta bean gaixoa arrapatzeko sare aundi bat ipinten eban.

Baiña egun baten gaixo-zaiña oso azperturek zoroaz azperturek, bere baitan iñoan.

Egunero sarea ipiñi ta kentzen ez naz ibilliko, lan orren ardurak, nire ardurak gaur amaitzen dira. Gaurtik aurrera sarea ez dauset ipiñiko, ia buzkentz ori lapikora zelan sartzen dan.

Beti bezela gaixoak igon eban teiletura, ta goiko gailurretik beko barrena begiratuz oiuegin eban, esanez.

Amabi-amabiak dira oraintxe ta... ta gaur aragi-izte eguna dalako, buzkentzik lapikora ez dogu botako.

BABESA

Nire auzoko Joseba mutiko oso azkarra da. Bere jakin-naia galdera, itaun ugari egitera beartzen eban. Ara emen bere aita, Martzelinori egin eutsan itauna.

Aita, Legeak zergaitik ez dau zillegitzen gizonezkoak andra bat baiño geiago eukiten?

Ara seme, legeak babesten ez dakiena, babestu ezin dana, beti babestzen daulako.

Aita be, azkarra ba zan ez dakit, baiña maltzurra zala argi dago.